

## **EUSKALTZAINDIAREN IRIZPIDEAK**

### **ERABILERA ETA OHARRAK**

Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak emandako irizpideetarik batzuek, leku-izenak arautzean hartu beharreko erabaki zehatzak iradoki baino gehiago, arautze prozesuaren asmo eta ildo orokorra ematen dute aditzera. Horregatik, arautze lanari ekin aurretik, espresuki aplikatuko ziren irizpideen hautespena egin zuen lan-taldeak, ildo haien adierazle hutsak zirenak identifikatuz eta datubasetik kenduz. Hala ere, era horretako irizpideek lan-taldearen espiritua eta estilo orokorra zehaztu behar zuten eta, horrenbestez, taldekideek ondo ezagutu behar zutela ez zen inola ere zalantzan jarri. Arrazoi hauengatik, HPSk eta Onomastika Batzordeak atondutako hasierako irizpide zerrenda orokor hartatik, toponimo zehatzen normalizazio proposamena justifikatu edo azaltzeko aipatuak izango ziren pasarteak hautatu behar izan ziren.

Taldea lanean hasi bezain laster, orokorregiak zirelako baztertuak genituen irizpide haietako batzuk, beharrezkoak zitzaizkigula ikusi zen eta, ondorioz, erabiltzen genuen zerrenda murriztu hartara birgaineratu ziren. Era berean, jatorrizko dokumentuan agertzen ez ziren zenbait arazoren aurrean, soluzioa bilatu eta jarraituriko bidea idatzi behar zela ikusi genuen, modu honetan, orain arte irizpideetan tipifikatu gabeko hizkuntza-fenomenoetarako, normalizaziorako irizpide berriak idazten ari ginela jakinik. Beste kasu batzuetan, jadanik agertzen ziren irizpideetan zehaztapen edo ikutu batzuk egitera ere ausartu ginen, Onomastika Batzordearen arautegi hori, mendebaldeko euskararen eremuko leku-izenen oso corpus handi baten gainean aplikatzen ari zen lehenengo aldia zela konturatu ginelako praktikarekin.

Lan-prozesu luze horren emaitza dira jarraian ematen ditugun ohar eta hausnarketa hauek, toponimiaren normalizaziorako Euskaltzaindiak emandako irizpideak gaitzetsi barik<sup>1</sup>, gehiago zehaztu, osatu eta aberastu aldera eginak. Asmo honekin ematen ditugu aditzera.

## **1. BOKALISMOA**

### **1.1. Bokal harmonia, bokal-itxitura, amaierako bokalismoa**

Bokal harmonia izenburuaren azpian hiru bokalismo mota desberdin biltzen dira irizpideetan<sup>2</sup>, gure ustetan hobeto bereizi eta zehaztu beharko liratekeenak.

<sup>1</sup> Gorrotxategi Nieto, Mikel; Salaberri Zaratiegi, Patxi. *Toponimia txikia arautzeko irizpideak*. Euskera 45, 2000-1: 273-314. Euskaltzaindia: Bilbo, 2000.

<sup>2</sup> 2.1.1. Hitz barruan gertatutako bokalen harmonia bere hartan utziko da dokumentazioak hersketa zaharra dela frogatzen baldin bada. Ibaras (1700, 1705, 1708, 1893), Ybarasbide (1915), Ibaras (1708), Ibarasbidea (1705), Ibaras (A), Iberats (A), Ibarasbide (A), Iberasko erreka (A) > Iberats (Uharte Arakil).

2.1.2. Hitz amaieran gertatutako bokalen harmonia (a>e; ea>ia; ia>iya, ixa; oa>ua; ua>uba, etab.) ez da onartuko eta jatorrizko bokalismoa berreskuratuko da. Era berean, ez da onartuko beste hizkuntzek eragindako aldaketarik (Zariketa > Zariquete). Bokalen harmonia hitz barruan gertatzen denean ez da onartuko baldin berria bada. Talie > Talea (Bermeo).

Alde batetik egiazko harmonia izango genuke, zeinetan aurreko nahiz ondoko hots bokalikoak, inguruko bokal bat aldarazi eta berarekin berdintzen duen. Gertakari honen izen zehatza, lehen erabiliagoa, *bokal-asimilazioa* litzateke. Aldatutako bokal hori edozein tokitan kokaturik dagoela gerta daiteke asimilazioa, ohikoena hitz barruko posizioa bada ere: *Kanterape* (Bermeoko baserria, ahoz *Kantarape* jaso), *Durango* (ondoko bokalak eraginik, ahoz besteak beste *Durongo* jaso dena), *Oribi* (Igorreko baserria, ahoz beti *Orobi* jaso dena)... Zenbait kasutan, bokalismo honen eragina alboko silaba baino harago ere hel daiteke: *Oxinluze* (Orozkoko auzoa, ahoz *Uxuluxu* eta *Uxuluze* jaso dena). Nahiz eta euskara ez beste hizkuntza batean gertatu eta hitz amaieran izan, era honetakotzat joko genuke *Zariketa* izena ere (Zallako auzoa, ahoz *Zariquete* jaso eta 2.1.2. arauan adibide gisa erabilia<sup>3</sup>). Honako kasu hauek guztiak deskribatzeko 2.1.3. araua sortu eta gaineratu dugu, bokal asimilazioak desegin eta jatorrizko era arautzea proposatzen duena<sup>4</sup>. Hala ere, badaude honelako asimilazio bokaliko batzuk, tradizio dialektal handikotzat jo daitezkeenak, hizkera arruntean ere erabiltzen direnak eta inguru honetako hizkeraren fonetismo jatorrizko hartzeko modukoak. Horrelakoak lirateke, besteak beste, *Akarregi* (Markinako tontorra eta Mendexako baserria, *aker* > *akar* Bizkaiko aldaketa jasotzen duena), *Munurru* (Zeanuriko basoa, *urratu* > *urrutu* mendebaldeko ohiko harmonia jasotzen duena)... Era honetako harmoniak onartzeko bidea ireki eta sailkatzen duen araua gaineratu beharko litzateke, baina bitartean 2.2.1. erreferentzia eman diegu araututako bokalismo hauei<sup>5</sup>. Ondorioz, kasu hauetan ez dugu erabili 2.1.1. araua, honek bokal irekitze eta hersketa ere deskribatzen dituelako<sup>6</sup>, eta hori adierazteko nahikoa izan dugulako 2.2.- arau biek<sup>7</sup>. Aldaera dialektal argia izanik, nahiz eta beste bokalisorik gertatu, bere hartara ekarri da era arautuan mendebaldeko tradiziozko grafia: *Lubarria* (Mendatako basoa, ahoz *Luberrixe* jaso, aurreko -u- horrek eragindako itxitura modernoa ez, baina dardarkari anitzaren aurreko irekidura zahar-zaharra eta Bizkaian tradizionala arautu duguneko).

Bestalde, irizpideetan hitz-amaierako bokalismoak aipatzen dira<sup>8</sup>. Bizkaian kasik leku guztietan automatikoak diren bokalismo hauen ondorioz, eskualde batzuetan euskararen eboluzio arinegi, leku-izen batzuk zeharo desitxuratuta jaso dira ahozko inkestetan. Badirudi bokalismo hauek zahar samarrak direla euskararen, hala jasotzen baitira maiz bizkaierazko literatura zaharrean. Ordea, euskara idatziaren batasunaren mesedetan eta azken aldiko joerekin bat eginik, pentsatzen dugu ez direla era idatzietan arautu behar. Beste alde batetik, gure ustez, ez da zuzena hitz amaierako posizioetako bokaletara murriztea, izan ere, zenbait hiatoren eboluzioa dela baieztatu daiteke eta ez hitz amaierako fenomeno soilik. Nolanahi ere, bestelako zehaztapenik beharko luke

<sup>3</sup> Ikus 2. oharra.

<sup>4</sup> 2.1.3. *Bokal asimilazioa: inguruko bokalarengatiko asimilazioak ez dira onartuko, batez ere moderno eta automatikoak baldin badira Orobi (A)>Oribi (Igorre), Kantarape (A)>Kantarape (Bermeo). Era berean, ez da onartuko beste hizkuntzek eragindako aldaketarik, Zariquete (A)>Zariketa (Zalla).*

<sup>5</sup> 2.2.1. *Bokalen irekidura eta itxitura: jasotako formak bere hartan utziko dira (bai bokalaren irekidura bai itxitura gertatzen denean) ondoko kasu hauetan: aspaldikoak direnean; euskara bizi den herrietan; ongi dokumentaturik daudenean; euskara galdu den tokietan, aldaera hori euskara galdu aurretik ageri ez bada; aldaketa kanpoko hizkuntzek eragindakoa denean. Larrazabal (A), Larrezabal (A) > Larrazabal (Lezo); Urresticho (D), Urrestitxo (D), Urruzti (D), Urresti (A), Urrusti (A) > Urresti (Gabiria).*

<sup>6</sup> Ikus 2. oharra.

<sup>7</sup> Ikus 2.2.1. araua 5. oharrean. 2.2.2.ak honela dio: *(Bokalen irekidura eta itxitura) Jatorrizko bokalismoa berreskuratuko da honako kasuetan: aspaldikoak ez direnean; euskara galdu den herrietan; nahiko dokumentaturik ez daudenean; euskara galdu den tokietan, aldaera hori euskara galdu aurretik ageri ez bada; aldaketa kanpoko hizkuntzek eragindakoa denean. Larrazabal (A), Larrezabal (A) > Larrazabal (Lezo); Urresticho (D), Urrestitxo (D), Urruzti (D), Urresti (A), Urrusti (A) > Urresti (Gabiria).*

<sup>8</sup> Ikus testua 2. oharrean.

irizpide honek, testuan biltzen diren adibideak fenomeno ezberdinei dagozkielako eta guk, ondorioz, ez ditugulako guztiak lantzen ari garen fenomeno honen barruan sailkatu. Kontrara, irizpide honen bitartez hitz-amaierako zenbait hiatotan gertatutako hersketak arautu ditugu (*ea > ia, ie, ii, i* eta *oa > ua, ue, u*), eta alde batera utzi jod fenomenodunak<sup>9</sup>. Justifikatu ahal izan den izenetan, jatorrizko erara itzuli da eta 2.1.2. araua<sup>10</sup> aipatu da erabaki honen oinarri bezala. Honen ondorioz, *Anbeko kobe*a (Ereñoeko haitzuloa, ahoz *Anbeko kobie* jaso dena), *Alakoa* (Amorotoko baserria, ahoz *Alakua* jaso), *Andarrapea* (lurretako presa, ahoz *Andarrapie* erabiltzen dena)... bezalakoak arautu ditugu. Hala ere, irizpideetako adibideen artean, esan bezala, guk 2.4.1.<sup>11</sup> edota 2.2.2.<sup>12</sup> zenbakidunetan bilduko genituzkeen beste era bateko fenomenoak daudela esan daiteke, batzuetan gainera aurreko bokalerdiak (*i* nahiz *u*) eragiten baitu artikularen itxitura: *Belabia* (Mungiako zuhaiztia, ahoz *Belabixa* jaso), *Minagorria* (Atxondoko zubia, ahoz *Minagorrix*e jaso dena)... Markina-Ondarroa aldean egin ohi den *ia > ixi* aldaketan harmonia bokaliko arrunta ere aipa liteke (2.1.3. eta 2.4.1. alegia<sup>13</sup>), baina 2.4.1. kasu gutxi batzuetan bakarrik gertatu da: *Done Mikel Goiaingerua eliza* (Ereño, besteak beste *Eleixi* hutsa jaso), *Laboraleko egoitza* (Markina-Xemeinen, ahoz *Laboraleko erresidentzixi* bildu eta arautzekotan *erresidentzia* grafia beharko lukeena)... Kasuistika anitz honen jakinaren gainean egonik ere, amaierako bokalismoa baizik ez dugu eman aditzera<sup>14</sup>.

## 1.2. Irekidura bokalikoak

Itxitura bokalikoak oso automatizaturik daude Bizkaiko euskaran eta erraz antzeman daiteke zein ote den kausa adibide bakoitzean. Horregatik normalki (aldaketaren testigantza zaharrik ez dagoenean, noski) jatorrizko bokala berreskuratzea jo dugu eta 2.2.2. araua aipatu<sup>15</sup>. Irizpide berbera aplikatu dugu irekidura bokaliko kasuan, baina gure ustez, fenomeno hau ez dago hain ondo tipifikaturik, hots-ingurua apur bat gehiago zehaztu beharko litzatekeelako, hain zuzen ere: *Arriagako atea* (Zeanuriko mendi-adarra, *Arreako atea* ahoskatzen dena), *Madariaga* (Zamudioko baserria, ahoz *Madarea* jaso), *Egilleor* (Zeanuriko baserria, ahoz eta zenbait mapatan *Egillaur* jaso dena), *Egillorko erreka* (Mañariko erreka, han *Aillorko erreka* ahoskatzen dena)...

Oso kasu berezia da, adibidez, dardarkari anitzagatik irekidura bokaliko (e > a) bizkaieraren ezaugarri ezagun tradizionala omen dena: *berri > barri, gerri > garri*... Konposatuen osagaiak direnean, halakoek *u* edo *i* baten eraginez itxitura modernoa ere paira dezakete, era estandarrera hurreratuz. Lehenengo irekidurak arauzkoak dira, baina bigarren itxiturak ez: *berri > barri*, baina *Lubarri* arautuko dugu, nahiz eta gaur *Luberri* ahoskatu (Mendatako basoa), *Lekunbarri > Leku(n)berri* (Arrieta, Lemoa eta Jatabeko baserriak, agian Nafarroako herri-izena dela eta, analogiaz ere lagunduta). Era honetako kasuetan, beraz, tradiziozko era dialektalera itzuli gara.

<sup>9</sup> Hiato horietako kontsonante epentetikoa ez da arautu, eta hori egiteko 2.4.1. irizpidea eman da aditzera: *Jod epentetikoa ezabatu egingo da. Jatorrizko forma berreskuratuko da beti. Belabiaspe (D), Belabiya (A) > Belabia (Meñaka).*

<sup>10</sup> Ikus testua 2. oharrean.

<sup>11</sup> Ikus 9. oharra.

<sup>12</sup> Ikus testua 7. oharrean.

<sup>13</sup> Ikus hurrenez hurren 4. eta 9. oharrek.

<sup>14</sup> 2.1.2. irizpidea bakarrik, beraz.

<sup>15</sup> Bokalen irekiduraz eta itxituraz, zehaztu gabe, aritzen dena. Ikus testua 7. oharrean.

Toponimia erromantzean irekidura eta itxiturekin euskaraz bezala jokatu da, hots: joera kontserbatzailea izan dugu eta jatorrizko eretara jo, euskarazko irizpide berbera aipatuz (2.2.2.<sup>16</sup>): *Arroyo de las Arroturas* (Karrantzako erreka, *Arroyo de las Arreturas* bildu dena), *Fuente del Piojo* (Villaverde Turtziozko iturburua, *Fuente del Piejo* jaso), *Los Cobichos* (Karrantzako sastraka, ahoz *Los Cubichos* jaso)...

### 1.3. Bokal protetikoa

Hasierako arautegian bokal protetikoari buruzko arau bat baino ez zen agertzen (2.8.1.<sup>17</sup>) eta hau erabiltzeari egokia iritzi diogu euskal toponimian bokal protetikoa galdu den kasuetan, batez ere dardarkariaren aurrean. Ordea, Bizkaiko mendebaldeko erromantzean agertu ohi diren bokal protetikoak arautzeko, aipatutako arauari ez diogu egokia iritzi eta kasu hauek biltzen dituen 2.8.1r. arau berria gaineratu dugu<sup>18</sup>. Era honetako leku-izenetan erabili da: *Arreturillas* (Sopuertako tontorra, *rotura* edo *retura* hitzetik heldu dena), *Las Arredondas* (Karrantzako belardia, *redonda* adjektibotik), *Los Arregatos* (Karrantzako belardia, *regato* izen generikotik)...

### 1.4. Kontsonante hiatiko eta epentetikoak

Hiatoan dauden bokal biren artean, euskaraz kontsonante bat sartu ohi da maiz. Kasurik ohikoena 2.4.1. irizpideak jaso nahi duen jod epentetikoarena dugu<sup>19</sup>. Irizpide hori aipaturik, *-ia* > *-ixa*, *-ija*, *-idza* bezalako aldaketak ahoz jaso arren, arauzko eretan ez ditugu onartu. Hala ere, gure ustez arau hori birformulatu beharko litzateke, kontsonante hiatikoa modu orokorragoan aipatuz, eta bere gain ohikoena den hura baino fenomeno gehiago hartuz. Honen parekoa den *-b-* epentetikoa, esaterako, oso erabilia izan da Bizkaiko zenbait hizkeratan nahiz euskalki literariotan (Mogel, Añibarro, Frai Bartolome...). Gaur egun hain hedatua ez dagoen arren, *-ua* > *-uba* epentesia aurrekoaren maila bereko gertakaria da gure ustez. Horregatik, *Eskuagatx* (Mañariko haitz-punta, ahoz *Eskuba(gatx)* jaso ohi dena) eta *Uarka* (Arratzuko auzoa, ahoz *Ubarka*) bezalako kasuetan *-b-* gabeko era proposatu dugu eta 2.4.1. araua aipatu<sup>20</sup>. Era berean, *Iurreta* era ofiziala eman dugu arauzkotzat (eta ez ahoz jaso den *Iyorreta*), nahiz eta 2.5.5. arauak *Ihurreta* eskatuko lukeen<sup>21</sup>. Halaber, azken irizpide hau ere, berriro planteatu edo formulatu beharko litzatekeela uste dugu, esan gabe badago ere, hasierako hiatoez baino ez dela ari bistan baitago. Bestalde, kontsonante hiatiko batzuk tradizio eta maila handiagokotzat jo ditugu eta, ondorioz, epentesidun aldaerak proposatu ditugu 3.7.1. arauan oin harturik<sup>22</sup>: *Igorre* (eta ez dokumentazioak eta gaztelaniazko era tradizionalak eman ohi duten *Yurre*), *Igartza* (Arrankudiagako baserria, eta ez *-g-* hori gabeko *\*Iartzza*,

<sup>16</sup> Ikus testua 7. oharrean.

<sup>17</sup> 2.8.1. *Bokal protetikoa galdu denean jatorrizko forma berreskuratuko da. Bokal protetikoa ote den ez dakigun kasuetan ere bokaldun aldaera hobetsiko da, baldin ongi dokumentatzen bada edo bizirik badago. Errekalde (D), Recalde (D), Recalde (A) / Errekalde (A) > Errekalde.*

<sup>18</sup> 2.8.1r. *Erromantzean hitz hasieran eta r aurrean agertzen den bokal protetikoa arautuko da, hala erabiltzen bada (Arroturas, Arregatos).*

<sup>19</sup> Ikus testua 9. oharrean.

<sup>20</sup> Id.

<sup>21</sup> 2.5.5. *Ahoskatzen den hiatua adierazteko h grafema tartekatuko da: Ihurre, Ihabar.*

<sup>22</sup> 3.7.1. *Hiatoaren kontrako kontsonantea: errespetatu egingo da, ahoz jasotako forma bere hartan utzita. Yarza (D), Igartza (A) > Igartza (Arrankudiaga); Yurre (D), Igorre (A) > Igorre.*

dokumentaturiko *Yarza* erak iradokiko lukeena), *Ugarka* (Zeanuriko baserria, eta ez maizago dokumentatzen den jatorrizko \**Uarka* era)... Hona ekarritako adibide hauen gaineko dokumentazioak XVII-XVIII. mendeetatik datorren fenomenoaren dela erakusten digu, normalki -g- epentetiko horiek, hasperenketa edo beste hots kontsonantikoren baten aztarna izanik.

Hiatoan dauden bokalak arrazoi desberdinengatik sudurkariak izan direlako memoria baldin badago, -ñ- kontsonante hiatikoa jasotzen duten kasuek aparteko tratamendua beharko lukete. Bizkaian ohikoa den -zione > -ziño amaiera latinoaren eboluzioaren antzeko zerbait gertatzen zaio zenbait toponimori. Toponimia nagusian horren lekuko lirakeke jadanik araututa dauden *Oromiño* (Zornotzako auzoa, dokumentazioan *Orobiano* eta *Orobio* agertu ohi dena), *Miñota* (Elorriko auzoa, dokumentazioko *Miota* eraren heldu dena), edo *Abadiño* bera ere (*Abadiano* dokumentatua eta gaztelaniaz gorde dena jatorri duena)... Eredu horri jarraiturik arautu ditugu -ñ- duten beste batzuk: *Ituiño* (Markina-Xemeingo baserria ahoz *Itxuño* eta *Itxoño* jasoa, baina *Ituyano* era zaharretik heldu dena), *Lomiño* (Markin-Etxebarriko baserria *Lobiano* dokumentatua eta ahoz *Lomiño* jasoa), *Egiriñao* (Zeanuriko aurkintza, dokumentazioan *Eguiriano* agertzen dena)... Erabaki hauek 3.7.1. araua aipatuta hartu ditugu<sup>23</sup>, baina esan bezala, agian aparte ere aipa litezke, nahiko gertakari bereiztua delako eta haren barruko kasuistika –sudurreztapen horien jatorria batik bat–, oraindik aztergai dagoelako.

### 1.5. Hiatoak

Irizpideetan hiatoak birjasotzeko edo beren horretan uzteko, elkarketa edo eratorpenaren ondorio ote diren begiratu behar dela esaten da. Azken hauek jaso diren moduan uzteko iradokitzen den bitartean, gainerakoetan galdutako bokalak berreskuratuko behar direla ematen da aditzera. Kasuak aztertu ahala –eta ugari samarrak dira–, konturatu gara hiato guztien trataera ez dela berbera izan behar.

Gure ustez, elkarketa edo eratorpenaren ondorio ez diren hiatoak, lexema barrukoak alegia, 2.5.2. arauarekin bat etorritik, beti birjaso beharko lirakeke. *Aiazatza* (Orozkoko auzoa, ahoz *Aizetza* erabiltzen dena), *Otxaortigako iturria* (Mañarian, ahoz *Otxortigako iturriye* jaso dena), *Labierua* (Gauegiz Arteagako baserria, ahoz *Labiru* esan ohi dena)... Ez gara ausartu beste horrenbeste egiten *Undurraga* toponimoarekin (Zeanuriko auzoa eta zentral hidroelektrikoa, dokumentazioan *Uandurraga* agertzen dena<sup>24</sup>), toponimia nagusia delako eta jadanik inausiriko modu horretan araututa eta normalizatuta dagoelako.

Lexema arrunten arteko elkarketaren ondorio direnetan, hots, elkarketa arruntaren kasuetan oro har, berreskuratuko behar direla uste dugu, horretarako 2.5.2. arauari eutsiz<sup>25</sup>: *Etxeandia* (Mañariko baserria, ahoz *Etxandi* jasoa), *Kobailun* (Mañariko harpea, ahoz *Kobilun* erabili ohi dena), *Ormaetxe* (Meñakako baserria, ahoz *Ormetxe* jaso dena)...

<sup>23</sup> Ikus testua 22. oharrean.

<sup>24</sup> Dokumentaturiko erak etimologia agerian uzten du: ur + andur 'urri, eskas'.

<sup>25</sup> 2.5.2. *Hiato eran dauden bokalak: gaur egun hiatoa agertu beharrean, forma murriztua agertzen bada, eta dokumentazioan ostera hiatoduna ageri bada, hiatoa berreskuratuko da.*

Posposizio egituren ondorio diren kasuetan tradizioa begiratuta irteera biak onar daitezkeela dirudi. 2.5.2. arauari jarraituz<sup>26</sup>, hiatoa berreskura daiteke: *Laurtuondo* (Zeanuriko tontorra, ahoz *Laurtondo* jaso), *Dardakaosteko erreka* (Zeanuriko erreka, ahoz *Dardakosteko erreka*)... Edo kontrara, 2.5.1. aipatu<sup>27</sup> eta ahozko joerari men eginik, hiatoa desagertuta utzi: *Oloste* (Zamudioko baserria, dokumentazio ugarian *Olaoste* agertu ohi dena), *Txabolondo* (Ispasterko basoa, *txabola-ondo* elkartzetik datorrena)...

Ohikoak diren elkarketa nahiz eratorpenetan hiatoak galdutzat eman daitezke, adibidez, deklinabide arruntean erabili ohi diren lege morfofonetikoak betetzen diren kasuetan  $-a+e=e$ ,  $a+o=o$ ,  $a+u=u$ , bereziki deklinabidean ere erruz erabiltzen den *-eta* atzizki lokatiboa agertzen denetan. Bide hau hartutakoan 2.5.1. araua<sup>28</sup> aipatu dugu: *lñarretzundu* (Orozkoko basoa *lñarra-etzundu* elkarketa argitik datorrena), *Oleta* (Amorotoko baserria, dokumentazio ugarian *Olaeta* eran aurkitzen dena), *Erroteta* (Amorebieta-Etxanoko baserria, dokumentazioan *Rotaeta*)... Baina elkartze-puntu horretan gertatzen den galera ez baldin bada tradizioan ohikoa, berreskuratzea jo dugu 2.5.2. arauan oinarrituz<sup>29</sup>: *Sintxieta* (Orozkoko erreka-zuloa, ahoz *Sintzita*), *Azekieta* (Orozkoko pagadia, ahoz *Asikita*), *Errekatxueta* (Orozkoko hegala, ahoz *Errekatxuta*)...

Badirudi aparteko trataera merezi duela tradizio handiko oikonimoetako *-ena* atzizkiak. Oro har, atzizkia bere osotasunean jasotzera jo behar dela uste dugu, baina gertatutako bokalismo guztiekin berdin jokatu barik. Adibidez, arauzkotzat jo dugu  $-a+ena = -ena$  egitea, 2.5.1. araua<sup>30</sup> aplikatuta hiatoa galduz, bereziki *-a* hori berezkoa ez denean: *Zabalaena* > *Zabalena* (Bermeoko baserria, *Zabala-ena* elkarketatik datorrena), *Ganena* (Laukizko baserria, ahoz *Ganene* jaso eta segur aski *Gana* deituraren eratorria)... Hala ere, frogatutzat eman daiteke *-ena* atzizkia baino lehenagoko bokalak ahozko erabileran indartsu gordetzen direla askotan –bereziki *-a* organikodun lexemak direnetan– eta salbuespen batzuk egin dira irizpide honen aplikazioan: *Anaena* (Ereñoko baserria, ahoz *Anane* erabiltzen dena), *Galartzaena* (Bermeoko baserria, ahoz *Galartzane*), *Gerekaena* (Bakioko baserria, ahoz *Gerekane* jaso dena)...

Errazena, *-e* bokalaz amaituriko lexemei gaineratutako *-ena* atzizkiak dira, bokal biak bat egin ohi direlako,  $e+ena = ena$ , eta 2.5.1. irizpidea aipatu dugu honelakoetan ere<sup>31</sup>: *Alkatena* (Berangoko baserria, *Alkate-ena* elkartetik heldu eta *Alkatene* jaso dena), *Sorretxena* (Mungiako baserria, *Sorretxe-ena* elkarketatik, ahoz *Sorretxene* bildua), *Salomena* (Bermeoko baserria, *Salome-ena* elkarketatik eta *Salomene* jaso)...

---

<sup>26</sup> Ikus testua 25. oharrean.

<sup>27</sup> 2.5.1. *Hiato eran dauden bokalak: bokal biketa konposizio edo deribazio bidez sortzen bada, jasotako forma bere hartan utziko da.*

<sup>28</sup> Ikus 27. oharra.

<sup>29</sup> Ikus testua 25. oharrean.

<sup>30</sup> Ikus 27. oharra.

<sup>31</sup> Id.

Atzikiaren aurretik gainerako bokaletako edozein suertatzen bada, ordea, hiatoak berreskuratzea jo dugu 2.5.2. irizpideko filosofian oinarrituta<sup>32</sup>. Lehenik, *-i+ena = -iena*: *Dendariena* (Lezamako baserria, ahoz *Dendarine* jaso dena), *Mariena* (Mungiako baserria, ahoz *Mariñe* jaso dena), *Zipiriena* (Galdakaoko baserria *Zipiriene* eta *Zipiriena* jaso)...; *-o+ena = -oena*: *Obispoena* (Abadiñoko baserria, ahoz *Obispuena* jaso dena), *Domingoena* (Larrabetzuko baserria, ahoz *Domingona* bildu dena), *Olanoen*a (Lezamako baserria, ahoz *Olanone* jaso)...; *-u+ena = -uena*: *Abaituena* (Munitibarko baserria, ahoz *Abaittune* jaso), *Kiñuena* (Busturiko baserria, ahoz *Kiñuene*), *Peruena* (Markin-Etxebarriko baserria, ahoz *Peruni* bildu dena)... Hiato hauek berreskuratu dituguneko kasuetan 5.2.4. araua aipatu dugu<sup>33</sup>, ordea gure iritzian, arauaren erredakzioan gerta daitezkeen galerak zehazki eta exhaustiboki deskribatu edo, kontrara, guztiz orokorra egin beharko litzateke, kasuistika guztia islaturik egon dadin.

### 1.6. Bokal paragoea: -e

Euskal Herriko iparrekialdeko herri izenetan, izen zaharrari gaineratu ohi zaion amaierako -e hori arautzea erabaki bazen ere, ez dugu uste mendebaldean antzekorik egin behar denik. Bizkai aldean ez da oraintsu arte amaierako -e horien arautzearen aldeko proposamenik egin, baina zenbait giro populista/etnografiazalaren aldetik gaur egun haren defentsa egiten hasi da. Amaierako -e horiek leku-izenen era ortografikoetan ez onartzeko arau berri bat gaineratu behar izan genuen. Fenomenoa ondo aztertu ostean, zehazki formulatu eta 2.8.2. zenbakia eman genion<sup>34</sup>.

Iñaki Gaminde irakasleak jakinarazi zigunez, nahiz eta azaleko itxura antzekoa izan, paradigma desberdinak erabiltzen dira izen arruntekin eta propioekin. Ikus ditzagun adibide batzuk:

	<b>Bokala arrunta</b>	<b>Bokala + a propioa</b>	<b>Kontsonantea arrunta</b>	<b>Kontsonantea + a propioa</b>
<b>NOR</b>	goiko etxea	Goikoetxea	taberna zaharra	Tabernazarra
<b>NON</b>	goiko etxean	Goikoetxean	taberna zaharrean	Tabernazarrean
<b>NONGO</b>	goiko etxeko	Goikoetxeko	taberna zaharreko	Tabernazarreko
<b>NONDIK</b>	goiko etxetik	Goikoetxetik	taberna zaharretik	Tabernazarretik
<b>NORA</b>	goiko etxera	Goikoetxera	taberna zaharrera	Tabernazarrera

Paragoea jasotzen duen hitzak -a amaiera eduki dezake jatorriz –artikulua eta, arraroagoa bada ere, organikoa–, edo kontsonantez amaitua izan daiteke. Lehenengo kasuan, hitzak -a amaiera edukiz gero, -e bihurtzen da bokal hori eta beraz, ez da egiazko paragoea gertatzen. Kontrara, baldin amaieran kontsonantea badago, maiz gertatzen da -e gaineratzea, hots, paragoge izeneko fenomeno. Argitu beharrekoak argituta, hala ere, bi kasuak sail berean sartzeari ez deritzogu gaizki,

<sup>32</sup> Ikus 25. oharra.

<sup>33</sup> 5.2.4. *Jabego genitiboa etxe izenetan: zenbait lekutan -ena > -ene bihurtzen dute. Halakoetan, berreskuratu egingo da jatorrizko bokala. Antonena (D), Antonenea (D), Antonene (A) > Antonena (Zestoa).*

<sup>34</sup> 2.8.2. *Bokal paragoea: deklinabidearen epentesi arruntak kontsonantez bukatutako izenetan eragindako paragoge analogikoak ez dira arautuko, amaierako bokal hori gabeko era nahiz artikuludunera itzuliko delarik, dokumentazioa begiratuta. Eutzagane>Autzagana (Zornotza, Muxika), Iberre>Ibarra (Erandio), Truendeganie>Truendegana (Bermeo).*

kausa berberen ondorioa dela uste dugulako. Eta kausa nagusi hori deklinabidean bilatu behar dugu, nahiz eta batzuetan aurreko hots bokalikoak *a > e* itxitura ere lagun dezakeen. Bigarren arrazoi hau oso argia da, aurreko hots hori *-i-* edo *-u-* denean, baita *-e-* denean ere, harmonia eraginik. Den legez dela, toponimoen erabilera tipologia hauek azter daitezke:

	<b>Bokala</b>	<b>Kontsonantea</b>	<b>Bokala + a</b>	<b>Kontsonantea + a</b>
<b>NOR</b>	Betondegi	Zubizabal	Olabarria	Goikogana
<b>NON</b>	Betondegin	Zubizabalen	Olabarrian	Goikoganean
<b>NONGO</b>	Betondegiko	Zubizabaleko (-go)	Olabarriko	Goikoganeke
<b>NONDIK</b>	Betondegitik	Zubizabaletik (-dik)	Olabarritik	Goikoganetik
<b>NORA</b>	Betondegira	Zubizabalera	Olabarrira	Goikoganera

Ikus daitekeenez, deklinabidea eranstea kontsonantez amaitutako leku izenekin *-e* epentetiko bat jaso ohi da NONGO, NONDIK eta NORA- kasuetan. Bada, honen ondorioz, NOR kasuan ere *-e* horrekin erabiltzen hasi dira: *Zubizabal > Zubizabale* eta *Goikogana > Goikogane* aldaketak eginik. Ondoren, NON kasuan ere, sistema berri honekin bat datorren forma analogikoa erabiltzen hasi da, artikularen berri gordetzen ez duena: *Goikogana > Goikogane > Goikoganen* (eta ez *Goikoganean*).

Gaur eguneko mendebaldeko ahozko erabilera eta proposatzen dugun paradigmaren arteko aldea kontsonantez amaitutako leku izenetan NOR eta NON kasuetan aurkituko litzateke bakarrik:

	<b>Ahoz</b>	<b>Idatziz</b>	<b>Ahoz</b>	<b>Idatziz</b>
<b>NOR</b>	<u>Zubizabale</u>	<u>Zubizabal</u>	<u>Goikogane</u>	<u>Goikogana</u>
<b>NON</b>	Zubizabalen	Zubizabalen	<u>Goikoganen</u>	<u>Goikoganean</u>
<b>NONGO</b>	Zubizabaleko	Zubizabaleko	Goikoganeke	Goikoganeke
<b>NONDIK</b>	Zubizabaletik	Zubizabaletik	Goikoganetik	Goikoganetik
<b>NORA</b>	Zubizabalera	Zubizabalera	Goikoganera	Goikoganera

Gainerako kasuetan, ezta bokalez amaituriko izenetan ere, ez legoke gatazkarik.

Azkeneko hau izango litzateke, hain zuzen ere, guk proposatzen dugun erabilera arautua. Bistan denez, *-e* paragogikoak, Bizkai aldean gutxienez, ez ditugu inola ere onartu eta kasu guztietan hura gabeko jatorrizko era arautzen saiatu gara. Badakigu neurri hau ez dela leku guztietan berdin ondo etorria izango, zenbait kasutan jadanik aspalditik zabaldu baitira *-e-dun* formak, baita jatorri ofizialeko iturrietan ere. Hala gertatzen da *-gane* amaierako mendi edo mendateen izen batzuetan: *Autzagana* (Amorebieta-Etxano eta Muxikako mendatea, ahoz bertan *Autzagane* edo *Eutzagane* jaso dena), *Gorondagana* (Sondikako tontorra, ahoz *Gorondagane* bildu dena), auzo-izen ezagunetan: *Ibarra* (Erandioko auzoa, ahoz han *Iberre* bildua)... Honelako kasuetan atzera egitea bide latza izango dela dudarik ez dago, ordea honen aldeko gure apustua argia da. Paragogedun eren ondorioak hasi dira jadanik ikusten Bizkaian zehar. Kanpaina honetako ahozko bilketetan *-e* paragogikoa duten izen batzuk, hain normal bihurtu dira, non *-e* horren ostean mugatzaile berria gaineratzen baitute

informatzaile batzuek inolako konplexurik gabe, gehienetan amaierako fonetismoa eta guzti: *Ibarra* (Amorotoko baserria, ahoz *Ibarrie* jaso), *Goikirigana* (Ugaoko mendi-adarra, ahoz *Goikiriganea*), *Truendegana* (Bermeoko tontorra, ahoz besteak beste, *Truendeganie* bildu dena)...

Bizkaian zehar hainbat aldiz kausi dezakegun *Ibarra* izenarekin –eta oso adibide argigarria izan daiteke–, uste dugu ezin dela irizpide desberdina aplikatu leku batetik bestera eta, ondorioz, modu berean jokatu dugu kasu guztietan. Eboluzioa bi norabidetarako bektoreek bultzatu dute. Alde batetik, -e paragogikoak eta honen ondoriozko harmonia bokalikoak, atzetik aurrerako bidea ibili dute: *Ibarra* > *Ibarre* > *Iberre*. Baina, aldiberean, *Iberra* erak ere jaso dira zenbait lekutan, eta hauetan -i- gatiko itxitura bokalikoak eta gero harmonia nahiz paragogea gertatu dira aurretik atzerantz, hau da: *Ibarra* > *Iberra* > *Iberre*, adibidez Gernika-Lumo eta Ajangizko *Ibarra*, ahozko lekukotzetan beti *Iberra* jaso dena. Nolanahi ere, lehenago zein beranduago kasu guztiak *Iberre* erara heltzen diren arren, guk *Ibarra* forman arautu ditugu.

## 1.7. Metatesiak

2.7.1.-2.7.2e. arauetan<sup>35</sup> bokal metatesiak aipatzen dira eta 4.1.1.-4.1.2. arauetan metatesi hutsak. Gure uste apalean, metatesia ez da hain fenomeno ugaria eta gainera, kasu guztietan tradizioaren aintzinasuna da irizpide erabakigarria. Bestalde, kasurik gehienetan bokalak eta kontsonanteak daude fenomenoan parte hartzen. Ondorioz, pentsatzen dugu ez duela garrantzi handirik bokalena ala kontsonanteena ote den aipatzeak. Bokalismoen artean aipatu beharrez, silabismo hustzat jaso eta modu orokorragoan birformulatuko genuke modu bakar batean. Honez gainera, gure ustez ez da hizkuntza-bereizketarik egin behar (2.7.2e.)<sup>36</sup>, euskaraz ere irizpide berbera erabili delako: *Malgarratzagabaso* (Gatikan, ahoz *Margaltza baso* jaso dena), *Pagoleorruga* (Munitibarko baserria, ahoz *Parriola* bildua), *La Paredina* (Lanestosako meatzea, ahoz *La Paderina* jaso dena)... Bokalena izan den kasuetan guk 2.7.1.-2.7.2e. jokia<sup>37</sup> aipatu dugu (bata zein bestea, ohikoan 2.7.2e., metatesi gehienak desegin baitira) eta gainerakoetan 4.1.1.-4.1.2.<sup>38</sup> (gehienetan 4.1.2. lehengo arrazoi beragatik). Gure proposamena, guztiak azken bi hauetara biltzea litzateke eta, ondorioz, lehenengo jokia kentzea.

## 2. KONTSONANTISMOAK

### 2.1. Hotsen errepikapena eta elipsia

<sup>35</sup> 2.7.1. *Bokal metatesiak: jasotako forma bere hartan utziko da aldaketa aspaldikoa (XX. mendea baino lehenagokoa) denean eta dagokion hizkuntzaren barrenean burutu baldin bada.*

2.7.2e. *Bokal metatesiak: jatorrizko forma berreskuratuko da, bokalaren metatesia inguruko hizkuntzen eraginez gertatu bada edo, dagokion hizkuntzaren barrenean gertatu arren, gertaera berria (XX. mendetik aurrerakoa) denean. Miralobuena (D), Miralobueno (D), Marilobueno (A) > Miralobueno (Urkabustaiz). Azken arau honetaz ari garela, gogoratu behar da, hizkuntza bereizketa egiten duen letra gaizki dagoela, erabiltzen diren adibideak erromantzezkoak direlako eta, ondorioz, 2.7.2r. kodea eman beharko zitzaiokeelako.*

<sup>36</sup> Ikus 35. oharra.

<sup>37</sup> Id.

<sup>38</sup> 4.1.1. *Kontsonanteen metatesia: ahoz jasotako forma dagoen bezala utziko da aldaketa aspaldikoa (XX. mendea baino lehenagokoa) denean eta euskararen barrenean burutu baldin bada.*

4.1.2. *Kontsonanteen metatesia: jatorrizko forma berreskuratuko da metatesia inguruko hizkuntzen eraginez gertatu bada eta euskararen arau fonologiko bati jarraikiz burututako aldaketa ez bada edo, euskararen barrenekoa izan arren, gertaera berria (XX. mendekoa) denean. Ibañarrieta (D), Ibiñarrieta (D), Ibañarrieta (A), Iñabarrietamendi (A) > Ibañarrieta (Zestoa).*

Ahozko bilketak eta era dokumentatuak erkaturik, oso argiro ikus daiteke silaben errepikapena dagoenean –maiz elkarketa baten ondorio–, silaba bi horietako bat desagertzen dela. Badirudi kakofoniaren aurkako errekurtsioa dela desagertze hori, aski natural eta automatikoa, baina bestalde, jatorrizko izenen izkutatzaile bilakatzen dena. Honegatik, gure ustez, jatorrizko formak berreskuratu behar dira eta hala egin dugu, 24.2.1. irizpidea aipaturik<sup>39</sup>: *Pagatzazabal* (Zeberrioko basoa, ahoz *Pagatzabal* eta dokumentazioan *Pagachasabal* jasoa), *Arteagagana* (Errigoitiko tontorra, ahoz *Atiagane* eta dokumentazioan *Arteagagana* era osoa jaso dena), *Mumusdei* (Zamudioko baserria, ahoz *Musdi* eta dokumentazioan *Munusdey* eta *Mumusdey* jasoa)...

Beste kasu batzuetan, balizko etimoak ematen du aditzera egoera honetan zegoen silaba bat galdu egin dela. Hipotesi horri eusten dion dokumentaziorik jaso ezean, ez gara ausartu era osatua eratzen eta arautzen, bere horretan utzirik: *Erregorta* (Arrankudiagako basoa, agian \**Erregegorta* eratik letorkeena), *Susterre* (Arrankudiagako malkarra, agian oinarrian \**Zuztarerre* duena), *Aginagana* (Igorreko tontorra, beharbada \**Aginagagana* izan beharko litzatekeena)...

Nahiz eta arauzko eretan silaba horiek jasotzeko 24.2.1. irizpidea aipatu<sup>40</sup> –oro har, galdutako silabak berreskuratzeko agintzen duena–, gure ustez, fenomeno hau ez da silaba-galera arrunt bat eta modu zehatzean tipifikatu beharko litzateke, fenomenoak deskribatzen laguntzeko, behar dituen azalpenak emanda.

## 2.2. Dardarkari anitzen metaketa

Sarritan aurreko fenomenoaren lagun, elkarketa baten ondorioz dardarkarien errepikapena suertatzen deneko kasua aipa daiteke. Honelako hots-multzoak ahoskatzen zail samarrak izaten dira eta normalki bilatzen den soluzioa silabetako baten elipsia izaten da, adibidez: *Lapurereketa* (Dimako auzoa, ahoz *Lapurketa* jaso dena). Honelako kasuetan, lehen aipatutako irizpide kontserbatzaileari jarraitu diogu gehienetan, baina bi dardarkari anitzetako lehenengoa bakun bihurtzea aukeratu dugu kasu partikular hauetan, hizkera erlaxatu arruntean –silaba ezabatzen ez denean, jakina– halaxe egin ohi delako: *Bolibarurrutia* (Zamudioko baserria), *Saratsibarerrekea* (Markin-Etxebarrian), *Bollaraurrekoa* (Ereñoko baserria)...

## 2.3. Eroritako -n- bokalartekoaren birragerketa

Elkarketa edo eratorpena gauzatzean, Euskal Herri osoan aurki daitekeen gertakari orokorraren ondorioz galdutako -n- bokalartekoak birragertzen dira askotan. Ondo tipifikatutako fenomenoak da<sup>41</sup> eta hiztegi arruntean gertatu ohi den legez, pentsatzen dugu eratorrietako -n- horiek arauzkotzat eman litezkeela. Hala \**ardano* zaharretik *ardao* > *ardo* datozen arren, *ardantza*, *ardantze*, *ardandegia*... heldu zaizkigu ere; \**gaztana* eratik *gazta(a)* > *gaztanbera*, *gaztandegi*...; \**katena*

<sup>39</sup> 24.2.1. *Silabak galtzea: dokumentatutako forma hobetsiko da dagokion hizkuntzaren arau fonologiko bati jarraikiz gertatu ez bada edo egungo ahozko aldaera aspaldi dokumentatzen ez bada. Arteaga (D), Artia (A) > Arteaga (Gautegiz Arteaga).*

<sup>40</sup> Ikus 39. oharra.

<sup>41</sup> Mitxelena Elissalt, Koldo. *Fonética histórica vasca*. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", IV, Serie "Obras completas de Luis Michelena", I, Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia, 1990: 301.

zaharretik *katea* > *katenbegi*... Era honetako eratorriak ontzat eman ohi dira eta, modu berean, toponimian *-n-* horiei eutsi behar zaiela pentsatzen dugu, erabileratik galduta ez badaude behintzat: *Areantza* (Gorlizko auzoa, ahoz *Arentza* jaso dena eta *arena* > *area* hitzaren eratorria), *Areantza* (Elorrioko baserria, ahoz *Arientza* jaso), *Kanpanzar* (Portugaleteko auzoa, *kanpana* > *kanpaa* > *kanpa* berban ei duena jatorri)... Fenomeno hau ez dugu arau-kode berezi batez identifikatu, baina agian hala egitea haren ikerketarako lagungarri izan liteke.

Onartu behar da, hala ere, mintzairatik desagertua dela dagoeneko *-n-* horietarik bat edo beste. Honelako kasuetan ez gara berreskuratzen ausartu: *Kanpazar* (Elorrioko mendatea, ahoz *Kanpasar* eta dokumentazioan *Campanzar* jaso dena).

#### 2.4. Bokalarreko leherkari ozenen galera

Hala erromantzezko izenetan nola euskarazkoetan, kontsonante hauen galera bulgarismotzat jo dugu eta jatorrizko era berreraikitzen saiatu gara: *Uvilla* (Ereño eta Ispasterko basoa, ahoz *Ulla* jaso dena), *Collado* (Artzentalesko auzoa, ahoz *Collao* jaso), *Urkiaga* (Igorreko baserria, ahoz *Urkia* jaso)... Hizkuntza bietan 3.1.2. irizpidea aipatu dugun arren<sup>42</sup>, kontsidera liteke erromantzerako arau zehatz aparteko bat ematea (3.1.2r.).

Bizkaiko zenbait eskualdetako erromantzez, hala ere, leku-izen konposatuetan ahoz maiz bildu diren *vado* > *vao* > *vau* > *vu* bezalako erak, beren hartan utzi dira, eskualdeko hizkeraren ezaugarritzat har daitezkeela pentsatzen dugulako: *Vulaslamas* (Karrantzako basoa, ahoz hala jaso baina *Baulalama* ere dokumentatua), *Saldelvao* (Karrantzako hegala), *Vautejo* (Karrantzako basoa)... Hau egindakoan, 3.1.1. irizpidea<sup>43</sup> aipatu dugu, baina zehatzago 3.1.1r. gainera liteke arau-multzora.

#### 2.5. Bokalarreko *-t-* epentetikoa

Zenbait kasutan elkarketaren ondorio *-t-* kontsonantearen epentesia gertatzen da. Ez da hiztunek gauzatzen duten errekurso automatikoa, baina onartu behar da euskararen eratorpena eta konposaketaren arau orokorrekin bat datorren fenomeno delako. Honegatik, uste dugu araukotzat eman daitezkeela epentesidun erak eta hala egin dugu, horretarako 3.7.1. irizpidea baliaturik<sup>44</sup>: *Astondo* (Gorlizko punta, *atx-ondo* elkarketatik datorrena), *Astobitza* (Amoroto, Berriatua eta Markina-Xemeingo erreka, *atx-obi-tza* elkarketatik datorrena eta jatorriz 'harrobia' esan nahi zuen hitz arrunta), *Munabetalde* (Berriatuko basoa, *Munabe-alde* elkarketaren ondorio)... Hala ere, fenomeno berezia dela dirudi eta agian aparte sailkatu beharko litzateke.

#### 2.6. Galdutako txistukaria berreskuratzea

<sup>42</sup> 3.1.2. *Bokalarreko herskari ozenen galera: toponimoak bokalarreko "b", "d" edo "g"-ren galera agertzen duenean, jatorrizko kontsonantedun forma berreskuratuko da inguruko hizkuntzen eraginez gertatu bada edo, euskararen barrenean gertatu arren, gertaera berria (XX. mendetik aurrerakoa) denean. Malzaga (D), Malzaga (A gaztelaniaz) / Maltzaa (A), Maltza (A) > Maltzaga (Eibar).*

<sup>43</sup> 3.1.1. *Bokalarreko herskari ozenen galera: toponimoak bokalarreko "b", "d" edo "g"-ren galera agertzen duenean, jasotako forma bere hartan utziko da galera aspaldikoa denean eta euskararen barrenean burutu baldin bada. Bajeneta Echenagucia (1704), Bajeneta Echenausia (1745) > Bajenetaetxenausia (Arrieta).*

<sup>44</sup> 3.7.1. *Hiatoaren kontrako kontsonantea: errespetatu egingo da, ahoz jasotako forma bere hartan utzita. Yarza (D), Igertza (A) > Igartza (Arrankudiaga); Yurre (D), Igorre (A) > Igorre.*

Leherkari gorraren aurrean maiz samar gertatu ohi da txistukariaren erorketa, baina beste zenbait kontsonanteren aurretik ere bai, afrikatuak adibidez. Fenomeno hau ez dago irizpideetan tipifikaturik eta guk ere ez dugu arau zehatz berririk gaineratu. Normalki 3.11.2. irizpide orokorra<sup>45</sup> aipatu eta galdutako hotsa berreskuratu dugu: *Azkarate* (Arteagako baserria, ahoz *Akarate* jaso), *Ispaster* (izen bereko udalerria, ahoz *Ipistar* eta *Ipaster* jaso), *Isuskitza* (Plentziako auzoa ahoz han *Isukitze* jaso dena, baita Lezamako baserria ere, *Isikitze* jaso)...

## 2.7. Horzkari aurreko sudurkaria gehitzea

Ahozko inkestetan ikusi ahal izan dugunez, afrikatu edota horzkari aurrean oso ohikoa da Bizkaian kontsonante sudurkari bat gauzatzea. Hala ere, *Armitza* arautu dugu dokumentazioarekin bat etorriz (Berriatuko tontorra, ahoz *Armintza mendixe* jaso dena), *Belakometaburu* (Mallabiko hegala, ahoz *Belakomentaburu* jaso), *San Roman ermita* (Muxikan, ahoz, besteak beste, *San Roman ermintxie* jaso, Bizkaian generiko epentesidun hori sarritan entzuten den arren)...

Bistan denez, pentsatzen dugu fenomeno honen ondorio diren sudurkariok ez direla arauzko eretan jaso behar, zeren berdin egiten baita hizkera arruntean eta toponimian, *ermita* generikoaren kasuan ikusi den legez. Kasu hauek ez ditugu irizpide zehatz baten bitartez identifikatu, baina ez legoke gaizki egitea. Kasuistika guztia lagin handi batez ondo aztertu, testuingurua ongi deskribatu eta gertakaria zehatz tipifika liteke, harekin jarraitu beharreko bidea adieraziz, hau da, arau berezi bat sortu, maiztasunik nahikoa dela ikusiz gero.

## 2.8. Txistukariak

Gauza jakina da, txistukariaren bereizkuntza ez dela mendebaldeko euskarari ondoegi egiten. Honenbestez, hots horiei dagokien grafia arautua erabaki aurretik, arreta handiz begiratu behar diogu tradizio idatziari. Halaxe egin dugu s-z eta *tz-tx-ts* nahaste orokorrekin, era dokumentatu edo etimologikoari lehentasuna emanaz eta horretarako pentsatuta zegoen 3.3.2. araua<sup>46</sup> aipatuz.

Oso ohikoa da kontsonante aurreko txistukariak apikoalbeolarera jotzea, bereziki kontsonante hura leherkari gorra denean. Hala, Euskaltzaindiak jadanik araututa zeuzkan *Astxiki* (Abadiñoko haitz-punta), *Askondo* (Mañariko baserria), *Elespe* (Dimako baserria)... grafiei segituz jokatzeko saiatu gara, txistukari etimologikoaren aldaketa zaharra izanik, zilegi dela uste dugulako. Kasu hauetan 3.3.1. irizpidea<sup>47</sup> aipatu dugun arren, arau honetan fenomeno desberdin asko izkutatzen direla dirudi eta kasuistika anitz hau bereizteko eta zehazkiago tipifikatzeko ahalegina egin liteke arauketan. Aipatzen ari garen kasu honetan, bestalde, badirudi -s- batzuek oso onomastika-

<sup>45</sup> 3.11.2. *Sailkatu gabeko kontsonante galerak: jatorrizko kontsonantea berreskuratuko da, dagokion hizkuntzaren arau fonologiko bati jarraituz gertatutako aldaketa ez bada. [...] Konsejuetxe (D), Kontseutse (A) > Kontsejuetxe (Aizarbazabal).*

<sup>46</sup> 3.3.2. *Txistukariaren nahastea: jatorrizko forma berreskuratu egingo da. Berreskuratze lana egiteko dokumentazioa ez ezik etimologia ere izango dugu gogoan azken hau argia denean. Gogoratu mendebaldean ohikoa dela z>s eta ts>tz aldaketa eta ohikoa dela dokumentazioan herskari aurrean z eta s nahastea, baster kasurako. Muncharaz (1704, 1745, 1796), Muncharas (1704, 1745), Muntzaatz (A) > Muntzaratz (Abadiño).*

<sup>47</sup> 3.3.1. *Txistukariaren nahastea: gaur egun ahoz jasotako formaren ahoskera bere hartan utziko da aldaketa azken mende biotan dokumentaturik dagoenean, edota ezagutzen ditugun erregelen (mendebaldeko aldakuntza, z>s, eta abar; edo erdaren eragina) ondorioa ez denean. Bereziki erreparatuko zaio ahozko aldaerari txistukariak bereizten diren lekuetan. Sarachaga (1705, 1745), Saratxaga (A), Satxagas (A) > Saratxaga (Gorliz, Plentzia).*

tradizio zaharra dutela mendebaldean, toponimian zein deituretan aski normalizatuta dauden adibide hauek bezala: *Amesti*, *Basterretxea*, *Zugasti*... Dena dela, zenbait kasutan, etimo argiak bultzaturik, badirudi zuzenena jatorrizko txistukari arautu estandarra jasotzea dela, gainerako euskalkietako tradiziotik lar ez urruntzeagatik. Hala egin dugu *Gaztaina*-, *Ametz*-, *Eguzki*- eta halakoetan: *Gaztañabarrena* (Gernika-Lumo eta Mendatako erreka-zuloa, ahoz *Gastañabarrena* jaso dena), *Amezmakurra* (Lemoako pinudia, ahoz *Ametsmakurre* (?!) bildu omen dena), *Eguzkitza* (Gatikako baserria, ahoz *Eguskiza* jaso)... Kasu hauetan ere, txistukarien nahaste arruntaren ondorio hutsa direla argi eduki arren, 3.3.2 irizpidea<sup>48</sup> aipatu dugu. Dokumentazioak erakutsitako tradizioan oinarrituta, salbuespen batzuk utzi dira txistukari "okerra" dutela: *Zugastieta* (Muxikako auzoa, inoiz *Zubi-bustieta* etimoa aipatu delako), *Basterrekoa* (Munitibarko baserria, mendebalde honetan *baster*-osagarriaren tradizio onomastikoak -s- baizik ez duelako), *Larrabasterra* (Sopelako auzoa, arrazoi beragatik)...

## 2.9. Kontsonanteen ozentzea

Deklinabidean genitibo marka gaineratzean, beronen -k- hotsaren ozenketa (-ko > -go), behin baino gehiagotan aurkitu dugun fenomenoa izan da. Pentsatzekoa da orobat gertatuko dela ablatiboaren -tik desinentziaren hasierako hotsarekin (-tik > -dik). Desinentzia horien lehenengo hots gorra ozentzea, gertaera jakina eta normalizatua da aurreko izenak -n edo -l amaiera duenean. Eta hala egin ohi da hizkuntza arruntean ere: *Xemeingo*, *Xemeindik*, *Elgezabalgo*, *Elgezabaldik*...

Bada, mendebaldeko toponimia corpus honetan, aurreko hitzaren amaieran txistukaria edo dardarkaria dagoenean, desinentziako hasierako gor hura ozendurik aurkitu dugu behin baino gehiagotan ahozko bilketan: *Lekaizgo korralak* (Zeanuriko aurkintza, *Lekaitz* izeneko iturriaren ondoan), *Larruzgo iturria* (Mañarian), *Atxulaurgo iturria* (Orozkon)...

Seguru asko, fenomeno antzekoaren ondorio izango dira ahoz jasotako *Arezduiederra* (Zeanuriko basoa, azkenik *Arestiederra* arautu dena), *Arizdia* (Arantzazuko baserria, *Arestuizar* arautua), *Gurbizduia* (Arrankudiagako basoa, halaxe arautua)... Kasu hauetan guztietan landare multzoa adierazten duen -d(u)i atzizkia dugu, txistukari ostean hasierako ozena gortu ohi duena (-di > -ti, -dui > -tui, -dei > -tei, -doi > -toi). Ikusi denez, dokumentazioan gortze estandarra aurkitu denean, halaxe arautu dira izenok. Era estandarrago hori arautu dugu halaber *Burbustubeaskoa* izenean (Zaratamoko baserria), bildu den ahozko era *Bisgoa* izan den arren. Gertakari bitxia da, jadanik testu zaharretan kausi daitekeena<sup>49</sup> eta uste dugu berrikeria ez den aldetik, mereziko lukeela aparteko tipifikazioa eta araua. Azken honen gabeziak, guk ez dugu arautze-kode berezi batez markatu.

## 2.10. Kontsonante aldaketak

<sup>48</sup> Ikus 46. oharra.

<sup>49</sup> Adibidez, Mitxelenak Mungiako guduaren ostean 1471an *Salinasgo kondeari* Bilbon kantatu omen ziotena biltzen du: "Leloriele sara y leloa / Bilbaon catigu dago Salinasgoa / Calea bera burua bax[...]n daroa, / Ser ete dan amoradu guexoa" (Mitxelena Elissalt, Koldo. *Textos Arcaicos Vascos*. Minotauro: Madril, 1974: 97-98.

Kontsonante aldaketak onartu ala gaitzesteko 3.2.1. eta 3.2.2. arauak<sup>50</sup> ditugu irizpideen artean eta haietaz baliatuz jokatu dugu kasu guztietan. Ahoz gauzaturiko aldaketa hauen aurrean, jatorrizko erara bihurtzeko erabakia hartu dugu gehienetan. Hala ere, gehien bat toponimia nagusiari dagozkion kasu batzuetan, kontsonante-aldaketak jadanik normalizatuak daudela baloratu eta hala utzi ditugu arautzerako geure proposamenetan: *Lumo* (Gernika-Lumoko auzoa, jatorriz *Luno*), *Maguma* (Muxikako auzoa, jatorriz *Maguna*), *Oromiño* (Amorebieta-Etxanoko auzoa, jatorriz *Orobi(an)o*)...

Aipamen berezia merezi duen fenomenoak aurkitu dugu, eskualde hurbiletako toponimo nagusi bitan. Kontsonante aldaketa batzuen ondorioz, auzo hauen izen tradizionalak eta gaurko era herrikoiak elkarretatik lar urrundu dira, haien arteko erlazioa jadanik iluna izateraino helduz. Kasu bietan deituren onomastika-tradizioak ere bultzatu gaitu jatorrizko erak arautzera, beti ere 3.2.2.<sup>51</sup> arau kontserbatzaile orokorra aipaturik: *Gandariats* (Lemoako auzoa, ahoz *Landaiz* edota *Landitze* jaso dena), *Gandatsegi* (Zeanuriko auzoa, ahoz *Landatzi* jaso eta zenbait mapa modernotan honelaxe errotulatu).

Gaztelaniaz, kontsonante aldaketen aurrean joera kontserbatzaileagoaz jokatu dugu eta, grafia zaharrak berreskuratzeko 3.2.2. araua aipatu den arren<sup>52</sup>, kontsidera liteke aparteko 3.2.2r. baten erredakzioa. Hots, toponimo erromantzeetan honelako kontsonante-aldaketen aurrean, era dokumentatua edo etimologikoa jaso dugu grafia arautuan: *Saldejoyo* (Karrantzako mendi-hobia, ahoz *Sandejoyo* jaso eta *sal* edo *sel* 'kortabasa' izenaren eratorria), *Refrádigas* (Abantoko kala, ahoz *Refráligas* eta *Refláligas* jaso), *Banacin* (Sopuertako hegala, inkestetan *Barracin* ere jaso)...

## 2.11. H etimologikoa leku-izen erromantzeetan

Leku-izen erromantzeetan hasierako nahiz tarteko *h* etimologikoa berreskuratu dugu, gaztelania estandarren joera orokorrari jarraikiz, eta 3.9.2r. arauari<sup>53</sup> erreferentzia eginez: *La Horcadura* (Karrantzako erreka-zuloa), *Laguna del Hayal* (Karrantzako tontorra), *Torcahonda* (Karrantzako mendi-hobia)...Hala ere, latinezko *f*-hotsaren hasperenketa –gaur egun *j*-bezala adierazita– errespetatu dugu grafian, mendebaldeko Enkarterriko hizkeraren ezaugarritzat hartu baitugu, horretarako 3.9.3r. arau berria<sup>54</sup> aipatuz: *Jornillo* (Karrantza eta Villaverde Turtziozko tontorra, latinezko *furnus* hitzetik heldu dena), *Joyojondo* (Turtziozko zuloa, *hoyo* eta *hondo* hitz erromantzeak biltzen dituen), *La Jayuela* (Karrantzako belardia, latinezko *fagus*-etik datorrena)...

<sup>50</sup> 3.2.1. Kontsonanteen txandakatzea gertatu denean, toponimoa ez da atzera bihurtuko eta gaur egun erabiltzen dena hobetsiko da, txandakatze hau aspaldikoa bada eta euskararen barneko bilakaerari baldin badagokio. Heguiraz (1076, 1229), Heguilaz (1247), Heguilas (1417) eta toponimia txikian Eguilazarra, Eguilazari, Eguilazbide, Eguilazbidea eta Eguilazbidea (XVII, XVIII eta XIX) > Egilatz.

3.2.2. Kontsonante txandakatzea gertatu denean, toponimoa aldatu egingo da, jatorrizko formaren alde, jatorrizko kontsonantea berreskuratuz, inguruko hizkuntzen eraginez gertatu bada edo, euskararen barrenean gertatu arren, gertaera berria (XX. mendetik aurrerakoa) denean. Bengolea. (1624, 1671, 1675, 1724, 1777, 1864, 1860 eta 1865), Mingolea. (1790, 1864) Mingolea (A), Bengolea (A hiztun batzuek) > Bengolea (Barakaldo).

<sup>51</sup> Ikus 50. oharra.

<sup>52</sup> Id.

<sup>53</sup> 3.9.2r. *H* hizkia: erromantzez etimologikoki *h*-dunak diren toponimoak *h*-rekin emango dira, nahiz eta ahoz hots hori jaso ez. *Hayal* (D), *Ayedillo* (D), *Ayedillo* (A) > *Hayedillo* (Kripan).

## 2.12. Kontsonante hoskide erromantzeak

Oro har, leku-izen erromantzeetako kontsonante hoskideen kasuetan (*b-v, g-j, h-Ø*) idazkera etimologikoa errespetatu da, betiere baldin horretarako daturik nahikoak aurkitu badira. Salbuespen legez, etimologiaren kontrakoa izanda ere, idatzizko tradizioa sustraiturik baldin badago, tradizio hori errespetatu egin dugu eta 9.1.5. arau berria<sup>54</sup> aipatu dugu: *Orcón* (Barakaldoko tontorra, seguraski latinezko *furca* hitzetik datorren arren, *Horcón* arautu ez duguna), *Ahedo* (Karrantzako auzoa, seguraski latinezko *fagus* hitzetik, gaztelaniaz *haya* eta euskaraz *pagoa* eman dituena, eta beraz, *Ha(y)edo* arautua iradokiko lukeena), *La Orta* (Urduñako hegala, dirudienez latinezko *hortus* hitzetik, gaztelaniaz *huerto* eta euskaraz *ortu* eman dituena, erromantzez *La Horta* eskatuko lukeena)...

## 3. MORFOSINTAXIA

### 3.1. Konposaketak

Euskal toponimoei dagokienez, hiru arau erabili ditugu nagusiki toponimo konposatuak adierazteko eta sailkatzeko. 6.1.1. araua<sup>55</sup> aipatu dugu, izen bi egiazko konposaketa batez lotuta agertzen zaizkigun kasuetan, sarritan gertatzen den legez, bigarren osagarria generiko bat izanda ere: *Agirreiturri* (Erandion), *Kaikuereka* (Durangon), *Ullantzugana* (Zaldibarko tontorra)...; edo izen + adjektibo egiturakoetan: *Urgorri* (Urduñako iturria), *Solozarra* (Amorebieta-Etxanoko basoa), *Tokieder* (Ondarroako basoa)... 6.4.1. arauari<sup>56</sup> dagozkion etxe izen konposatuak, bakarrik oikonimian tipikoa den konposaketako kasuak sailkatu ditugu, hala nola *Libaroasantiagoena* (Gatikako baserria), *Bastegietaetxebarria* (Ibarrangeluko baserria), *Olabezubiaga* (Berrizko baserria)... Azkenik, 5.1.3. araua<sup>57</sup> erabili dugu *-ko* genitiboaren marka agertzen den oikonimoetan alde batetik: *Agirrekoerrota* (Mungiako baserria), *Basterrekoetxea* (Lemoizko baserria), *Askarragakolea* (Elorrioko baserria)... eta bestetik toponimo ihartuetan, hau da, toponimoan *-ko* markaren ondoan agertzen den generikoa ez dagokionean gaurko errelitate geografikoari: *Urrestikolanda* (Derioko tontorra), *Markarrikozuloa* (Eako kala), *Ellaurikolarrea* (Zeanuriko tontorra)...

Hauetz gain, genitibo-egitura egon arren, lotuta idatzi ditugu generiko batzuk, aurreko lexema espezifikoa ez baina kokatzaile hutsa den kasuetan, hau da: *behe, erdi, goi...* + *ko* + generiko egitura duten izenetan: *Goikogana* (Arrankudiagako tontorra), *Bekoiturria* (Iurretan), *Goikobaso* (Zeberion)... Arautze hauen oinarri 5.1.3. irizpidea<sup>58</sup> eman dugu aditzera, hainbeste kasu ez baitira izan, baina

<sup>54</sup> 9.1.5. Leku-izen erromantzeetako kontsonante hoskideen kasuetan (*b-v, g-j, h-Ø*), idatzizko tradizioa sustraiturik baldin badago, etimologiaren kontrakoa izanda ere, tradizio hori errespetatu daiteke. *Orcón* (Barakaldo) eta ez *Horcón*, seguraski latinezko *furca* hitzetik datorren arren; *Ahedo* (Karrantza) eta ez *Ha(y)edo*, seguraski latinezko *fagus* hitzetik datorren arren, gaztelaniaz *haya* eta euskaraz *pagoa* eman dituena; *La Orta* (Urduña) eta ez *La Horta*, dirudienez latinezko *hortus* hitzetik datorren arren, gaztelaniaz *huerto* eta euskaraz *ortu* eman dituena.

<sup>55</sup> 6.1.1. Izena + izenondoa, izena, adberbioa, aditza, etab.: tartean deklinabide hondarik ez bada osagaiak lotuta idatziko ditugu. *Gorrondoaurrekoa* (A), *Gorrondo Aurrekoa* (D) > *Gorrondoaurrekoa* (Berango); *Peñalta*.

<sup>56</sup> 6.4.1. Izena + izenondoa, izena, adberbioa, aditza, etab.: etxe izenak loturik emango dira tartean atzikirik egon ala ez. *Sutsubekoa* (A), *Zuazo becoa* (D) > *Zuhatzubekoa* (Leioa).

<sup>57</sup> 5.1.3. Lekuzko morfema genitiboaren espezifikorekin eta generikoaren arteko lotura egiteko denean: osagaiak baturik emango dira etxe izenetan edo ageri den generikoa ihartua dagoenean, hau da generiko horrek aditzera ematen duen objektuaz beste zerbait denean. *Bentakoerreka industrialdea* (Arrigorriaga).

<sup>58</sup> Ikus 58. oharra.

badirudi kasu hauek zehazten dituen deskribapena edota arau berezia gaineratu beharko litzatekeela irizpideetan.

Erromantzeko konposaketaren kasuistika, Euskaltzaindiaren irizpideetan biltzen dena baino konplexuagoa zela ikusita, interesekoa iritzi genion zeuden arauak zehazteari eta osatzeari batetik, eta bi arau berri proposatzeari bestetik. 7.1.1r. araua<sup>59</sup> bere horretan mantendu egin da eta izen + adjektibo multzoak osatutako konposaketetan aplikatu dugu: *Aguasfrías* (Alonsotegiko erreka), *Buenosaires* (Villaverde Turtziozko etxea), *Cuetorredondo* (Villaverde Turtziozko tontorra)...; baita izen + izen egiturakoetan ere: *Regatolobo* (Barakaldoko iturburua), *Aldeacueva* (Karrantzako auzoa), *Campomar* (Muskizko tontorra)... 7.2.1r. arauaren hasierako erredakzioan<sup>60</sup>, toponimoak bereiz idazteko, artikulua beharra aipatzen zen bakarrik, baina gure ustez, preposizioa baldin badago eta ahozko inkestak toponimoa bereiz ahoskatzen dela baieztatzen baldin badu, horixe islatzen duen grafia arautu behar da. Arau hau jarraian zehazten diren kasu hauetan erabili dugu:

Bai artikulua bai preposizioa agertzen direnean: *Alto de la Fuente* (Karrantzako tontorra), *Cueva del Mudo* (Karrantzako haitzuloa), *Fuente del Oro* (Gordexolako iturria)...

Bakarrik preposizioa agertzen bada: *Fuente de Hierro* (Trapagaraneko iturria), *Arbolar de Cano* (Zallako basoa), *Maza de Topo* (Karrantzako tontorra)...

Eta azkenik, preposiziorik gabeko artikuludun aldakia nagusitzen denean: *Calleja la Mesa* (Karrantzako erreka-zuloa), *Cerrillo los Corvos* (Karrantzako mendi-hobia), *Cueto la Cabra* (Villaverde Turtziozko mendi-adarra)...

Artikulu eta preposiziorik gabeko aldakia edukita ere, inkestak erakusten digunean toponimoa bereiz ahoskatzen dela, halakoxe grafia arautzea erabaki dugu, horretarako bidea ematen digun 7.3.1r. arau berria<sup>61</sup> sorturik: *Pico Miguel* (Artzentalesko tontorra), *Punta Lucero* (Zierbenan), *Concha Segunda* (Abanto-Zierbenako meatzea); edota toponimo berri batzuen kasuan, bereziki *villa* eta *casa* hitzek osatutakoetan: *Villa Urquijo* (Urduñako etxea) eta *Casa Felipe* (Trapagarango etxea).

---

<sup>59</sup> 7.1.1r. Preposizioa + izena; izena + adberbioa; izena + izena: osagaiak batera idatziko dira, ahoz edo dokumentazio gehienez artikulurik gabe agertzen badira, izenek gardentasuna galdu dutenean, aldaketa fonetikoak gauzatu direnean, *Entreerroyos (A)*, *Entre Arroyos (D)*, *Entre Royos (D)* > *Entreerroyos (Erriberagoitia)*.

<sup>60</sup> 7.2.1r. Preposizioa + izena; izena + adberbioa; izena + izena: osagaiak bananduta idatziko dira, nagusiki artikulua horniturik agertzen direnean. *El Puente Madera (A)* (Sopuerta).

Guk proposaturiko erredakzio berria, ordea, honako hau litzateke: *Preposizioa + izena; izena + adberbioa; izena + izena: osagaiak bananduta idatziko dira, nagusiki artikulua nahiz preposizioaz horniturik agertzen direnean. El Puente Madera (A)* (Sopuerta), *Fuente de Hierro* (Trapagaran).

<sup>61</sup> 7.3.1r. Artikulu eta preposiziorik gabeko aldakia edukita ere, inkestak erakusten digunean toponimoa bereiz ahoskatzen dela (bereziki azentuazioari arreta emanik), hala arautu daiteke. *Pico Miguel* (Artzentales), *Punta Lucero* (Zierbena), *Concha Segunda* (Abanto-Zierbena) edo toponimo berri batzuen kasuan, *villa* eta *casa* hitzek osatutakoetan bereziki: *Villa Urquijo* (Urduña) eta *Casa Felipe* (Trapagaran).

Bukatzeko, preposiziodun nahiz artikuludun toponimo asko fosilizatuta daudela, konposaketaren elementuren bat desitxuratuta dagoela edo fonemaren bat konposaketaren ondorioz galdu dela ikusita, toponimo hauen idazkera elkartua arautu ahal izateko, komenigarria iritzi diogu 7.4.1r. araua<sup>62</sup> sortzeari: *Vaulasmaderas* (Karrantzako basoa), *Ventalaperra* (Karrantzako haitzuloa), *Entrambosríos* (Artzentesko auzoa).

### 3.2. Perpaus egiturako toponimoak

Leku-izenak perpaus itxura duenean, haren osagarriak lotuta idazteko sistema hartu dugu, nahiz oso erabaki komertzionala dela jakin. Ez dira kasu asko eta ez dute aparteko deskribapena egiten dien arau berezirik. Honen ondorioz, ez dago toponimo bitxi hauek sistematikoki identifikatzeko modurik. Dena dela, honakoak arautu ditugu: *Atxikezdaukanaldea* (Aulestiko hegala), *Matopedrolobo* (Karrantzako erreka), *Arririkezdagoenaldea* (Markina-Xemeingo basoa) eta *Uradariona* (Bakio eta Lemoizko erreka eta labarra).

### 3.3. Artikulua

Aipatzekoa deritzogu toponimia erromantzean artikulua agertzeko joerari. Beti identifikatzen erraza izan ez arren, toponimoaren parte ez denean artikulua kentzen saiatu egin gara, horretarako 0.1.4r. araua aipaturik: *Ameyadero Malo* (Karrantzako erreka-zuloa, ahoz *El Amelladero Malo* jaso), *Escobal* (Galdamesko erreka, noizbait *La Olla del Escobal* izenean artikuluz agertzen dena), *Estación* (Sopuertako auzoa, ahoz *La Estación* bildu dena). Toponimoa artikulua + izen egituraduna denean, oro har, bereiz arautu dugu 11.5.1. araua<sup>63</sup> aipatuta: *El Zorrillo* (Gordexolako basoa), *La Molina* (Balmasedako baserria), *El Alisal* (Gordexolako basoa)... Baina baldin tradizio idatziak elkarketa dagoela frogatzen badu, batera idatzi ditugu: *Lanestosa* (id.), *Latabla* (Karrantzako malkarra), *Lacalle* (Karrantzako mendi-hobia)...

Azkenik esan behar da, toponimo erromantzeen hasierako artikulua letra larriaz hasten bada ere, generikoa gaineratzen diogunean minuskulaz jarri dugula, hasierako posizio hura galdu duelako: *El Cándano / Bosque el Cándano* (Villaverde Turtziozen), *La Rastrilla / Fuente la Rastrilla* (Gueñesen), *Los Amarillos / Escarpe los Amarillos* (Karrantzan)...

### 3.4. Generoa

Ahozko datuen bilketak, gaur egun oraindik hala erabiltzen dela frogatzen badu, generorik zaharrena jaso dugu era arauzkoaren proposamenean, Bizkaiko mendebaldeko erromantzearen ezaugarritzat hartuta: *El Cumbre* (Galdamesko tontorra), *La Canal* (Galdamesko erreka), *La Puente* (Turtziozko auzoa)...

<sup>62</sup> 7.4.1r. Preposiziodun eta artikuludun toponimo asko fosilizatuta daudela, askotan konposaketaren elementuren bat desitxuratuta dagoela eta fonemaren bat konposaketa dela-eta galdu dela, bere horretan arautu daiteke. *Vaulasmaderas* (Karrantza), *Ventalaperra* (Karrantza), *Entrambosríos* (Artzentesko).

<sup>63</sup> 11.5.1. Erdarazko artikulua duten formak: artikulua argia denean eta bestelako tradiziorik ez den bitartean osagai biak bananduta idatziko dira eta toponimoa berdina izango da hizkuntza bietan. *Lacuadra* (A), *La Cuadra* (D) > *La Cuadra* (Aiara); *La Cuadra*, *Caserío* (gaz.) / *La Cuadra* baserria (eus.).

## 4. ALDERDI LEXIKOAK

### 4.1. Oikonimia

Etxe-izenen tradizio handia eta datuen ugaritasuna ikusirik, badirudi euskarazko oikonimiak tratamendu zehatz eta berezkoa behar duela. Haren erabilera ere bizi-bizia da, nahiz eta azken mendean desitxuratzeko fase nabarmen batean abiatu den hainbat eta hainbat etxe-izen. Izen hauen praktikotasunak eta erabili beharrak, maiz jabearen izenarekin nahastea ekarri du: jabeak etxearen izena har dezake, baina alderantziz, etxeak jabearen izena, goitizena edo deitura ere. Azken kasu honetan, ahal izan den neurrian, etxearen izena berreskuratzen jo dugu, sarritan iturri dokumentalen laguntzari esker (9.1.2. araua<sup>64</sup>): *Mintegibekoa* (Arratzuko baserria, ahoz *Maridzene* bildu dena), *Olabarrigana* (Galdakaoko baserria, noizbait *Marianona* jaso dena), *Uriartenagusia* (Dimako baserria, ahoz *Olabarrina* jaso eta goitizen legeaz, parentesi artean, *Olabarriena* ere arautu dioguna)...

Beste kasu askotan, etxeak goitizena edo izendapen hipokoristikoren bat izaten du eta berau da maizenik erabiltzen dena. Kasu hauetarik ugariak, izen osoaren era laburtu bat erabiltzean datza, askotan osagarri kokatzaile hutsa: *Bitañogoiengo* (Izurtzako baserria, ahoz *Goienengo* hutsa jaso), *Galletebeitia* (Ispasterko baserria, ahoz *Beitxikue* jaso dena), *Iurrebasoandikoa* (Igorreko baserria, ahoz *Andikoa* jaso)...

Beste kasu batzuetan, oikonimia nagusian adibidez, egiazko izena alboratu eta generikoa erabiltzen da bere hutsean. Gure irizpide orokorra, informazio osoa biltzen duen izen 'ofiziala' jasotzea izan da, askotan era konposatu luze samarrak birreraiki behar izan ditugun arren. Hala ere, ez gaitu honek ikaratu behar, euskararen oso naturalak eta tradiziozkoak baitira honelako konposaketa luzeak oikonimian eta, ondorioz, deituretan: *Lexartzaerrota* (Izurtzan, ahoz, besteak beste, *Errota* hutsa ere jaso), *Sarrikolea* (Larrabetzuko baserria, besteak beste, *Ola* hutsa ere jaso dena), *Arandiajauregia* (Iurretako baserria, ahoz *Palazio* soila jaso dena), *Agirretorrea* (Ispasterko baserria, ahoz *Torrie* bildua)...

Berreraiketa hauetan kokatzailea agertzen denean, 23.1.1. araua<sup>65</sup> aipatu dugu besterik gabe. Beste batzuetan, konposaketa luzeak egin ditugu, erabilera eta tradizio dokumentalean oin harturik. Orduan, aipaturiko arau horrez gainera, 6.4.1.<sup>66</sup> edota 9.1.2.<sup>67</sup> aipatu ditugu: *Beranogoiti* (Mallabiko baserria), *Gangoitibekoa* (Berrizko baserria), *Elortzaostekoa* (Urdulizko baserria)...

Kasu batzuetan, etxearen edo jabearen goitizena baliokotzat jo dugu, jatorria, sorkuntza, informazio-maila e.a.engatik eta izen ofizial 'serioaren' ostean paratu dugu parentesi artean ohar

<sup>64</sup> 9.1.2. Ahoz eta dokumentaturik jasotako formak: ahoz jasotako toponimoaren ordez forma dokumentatua erabili da. *Yeuri* (A), *Jauregui* (D) > *Jauregi* (Bedia, Getxo,...).

<sup>65</sup> 23.1.1. Silabak galtzea: ahozko erabilera gordeko da dagokion hizkuntzaren arau fonologiko bati jarraikiz gertatu bada eta aspaldi dokumentatzen bada. *Curuce* (D), *Curce* (D), *Kurtze* (A) > *Kurtze* (Galdakao).

<sup>66</sup> 6.4.1. Izena + izenondoa, izena, adberbioa, aditza, etab.: etxe izenak loturik emango dira tartean atzikirik egon ala ez. *Sutsubekoa* (A), *Zuazo becoa* (D) > *Zuhatzubekoa* (Leioa).

<sup>67</sup> Ikus testua 35. oharrean.

moduan: *Abiña (Txikerrena)* (Muruetako baserria), *Gumuziobarria (Frantsesena)* (Galdakaoko baserria), *Zelaialde (Tabernazarra)* (Gautegiz Arteagako baserria)...

Berreraiketa luzeen aurrean, hala ere, zenbait salbuespen daude gure jokabidean. Lehenik, bildutako ahozko erek, era dokumentalek eta gainerako informazioek, askotan ez digute argibiderik nahikoa eman, zenbait baserriri zehazki zein etxe-izen zahar eman dakioken jakiteko. Kasu hauetan, jakina, erabilerari jarraitu diogu eta erabiltzen den izen huts hori eman diogu, ikerketa dokumentalak aurrera joan ahala, era honetako hutsuneak betetzen joango direlako esperantzatan.

Eztabaidatua izan den arren, badirudi etxe-izenek osagai bat baino gehiago dutenean, elkartuta idazteko soluzioa dela hobestekoa. Oso ohikoa da euskal onomastikan honelako egitura konposatuen erabilera eta euskarak berezko duen errekurtsio jatorra dela pentsatzen dugu: *Uharte Arakil* eta *Uharte Garazi*, *Gerrikagoitia* eta *Gerrikabeitia*, *Arteaga Arratia* eta *Gautegiz Arteaga*... bezalako bereizketak oso ohikoak dira, hala leku-izenetan nola deituretan.

Sarrien errepikatzen den egoera izaten da, zenbait etxek osatzen duten multzoa edo auzoaren kasua. Askotan etxe horietarik bat izan zen iraganean nagusiena eta auzo osoak jaso du haren izena. Ondorioz, gaur egun, auzoko etxe guztiek daramate izen hori bera eta elkarretatik bereizteko, osagarri bana hartu behar izaten dute: *Unda auzoa*, *Undabeitia*, *Undagoitia* (Muxikako auzoa eta beronen baserriak); *Zamakola auzoa*, *Zamakolaetxebarria*, *Zamakolaetxenagusia* (Dimako auzoa eta beronen baserriak); *Sagasta auzoa*, *Sagastabeitia*, *Sagastaetxebarri*, *Sagastagarai*, *Sagastagoia*, *Sagastagoitia*, *Sagastasoloa* (Abadiñoko auzoa eta beronen baserriak)...

Honelako erabilera arruntean, ohikoena bigarren osagai hutsa jasotzea izaten da. Erabiltzailea *Sagasta* izeneko auzoan dagoenean, ez du beharrik ikusten izen konposatu osoa emateko eta bigarren zatia bakarrik emango du: *Beitia*, *Etxebarri*, *Garai*, *Goia*, *Goiti*, *Soloa*... Eta bide hau zilegi da euskaraz. Guk geuk horixe egin dugu zenbaitetan, batez ere, baldin mapan auzoaren izena errotulaturik agertzen bada, baserri izenaren osagai bereizle hura bakarrik idatzi zaie ondoan. Baina jokabide honekin kontuz ibili beharra dago, lehentasuna izen osoak duela argi edukiz. Testuinguru horietan –auzoan bertan berbetan ari garenean nahiz mapan auzo horretako etxeak begi aurrean ditugunean– izen osoa ez ematea zilegi bada ere, hortik kanpo ezinbestekoa da izena bere osotasunean ematea, adibidez, udalerriri bateko etxe-izenen zerrenda alfabetiko bat osatu nahi dugunean. Euskal konposaketa-sistema honen funtsa, funtzioa eta erabilera ikusirik, izenen era laburtuak aukeratuz gero, aipatutako arrisku hori izan behar dugu buruan. Horregatik, nahiz eta errotulaturiko mapan *Beitia*, *Barrenengoa*, *Etxebarri*... agertu, zerrenda batean *Arratiagoienbeitia* (Dimako baserria, Artaun auzoan), *Aspiuntzabarrenengoa* (Arrankudiagako baserria, Aspiuntza auzoan), *Aldiñaetxebarri* (Zeberiko baserria, Aldiña auzoan)...

Adibideetan ikusi den legez, aipatu ditugun bigarren osagai horietarik asko, kokatzaile erreferentzialak baizik ez dira izaten. Kokatzaile horiek baliagarriak dira erreferentzia egiten dioten eremu mugatu horren barruan baldin bagaude. Bestela ez. Eta orobat gertatzen da generikoekin. Askotan gertatzen da *torre*, *jauregi*, *errota*, *ola* eta honelakoekin, kokatuta dauden auzoan gaudenean,

eraikuntza identifikatzeko generiko hutsa aipatzea nahikoa izatea. Baina hortik kanpo gaudenean, aurreko osagaia gaineratu behar zaio –maizenik auzoaren izena–, bestela, izen bereko beste batzuekin nahasteko arriskua baitago. Gainera, batez ere dorre eta jauregien kasuan, generiko hutsaz izendatzea, egiazko izenaren elipsia egitearen modukoa da. Honegatik, kasu hauetan, ia sistematikoki jarri dugu izen konposatu osoa, ahoz elipsoidun era jaso den arren. Sarritan, dokumentazioak lagundu digu osatze-lan horretan eta azkeneko emaitza, agian, erabiltzaile arruntarentzat arrotz gerta daiteke: *Zamudiotorre* (Zamudion, ahoz *Malpika* jaso dena, jabe zaharraren izenaz ezagunagoa baita), *Martzaajauregia* (Atxondoko baserria, ahoz *Palazixue* hutsa jaso dena), *Berriozabaljauregia* (Elorrioko baserria, halaber, *Palazixue* bildu dena)...

Azkenik, oikonimia berria –txaletak e.a.– arautzean, tradiziozale izan nahi duten arau hauen funtsa erlatibizatu egin da eta zenbait proposamen, jabeek erabaki bezala eman dira eta ez irizpideen arabera: *Villa Sangroniz* (Erandioko txaleta), *Artetaren etxea* (Ugaoko baserria), *Bidegane* (Mungiako txaleta)...

## 4.2. Hagionimia

Hagionimiaz aritu aurretik, hartutako erabakien azalpena bideratzeko, zenbait kontzeptu argitzea ezinbestekoa gertatzen zaigu. Izan ere, hiru izendapen mota bereizi ditugu.

Alde batetik, ‘Adbokazioa’ santu edo Ama Birjinaren deizio baten izen osagarria dugu, toponimiarekin zuzenean loturik ez dagoena. Nahiz eta jatorrian santuen irudiak izendatzeko erabili, gaur egun batez ere tenpluak izendatzen dituzte eta, hortaz, mapen errotulazioan nahitaezkoak jotzen ditugu. Hala ere, hizkuntza batuak hauek adierazteko eskaini beharko lituzkeen baliabideen gabezia, oso nabarmena da euskaraz. Honen ondorioz, gaztelaniaz ohikoak zaizkigun zenbait deituren itzulpena nekagarria gertatzen da: *Nuestra Señora de los Remedios*, *Cristo Redentor*, *Santo Ángel de la Guarda*, *Santo Cristo de la Piedad*... nola eman behar dira euskaraz?

Bigarrenik, ‘hagionimoa’ bereizi behar dugu. Hauxe dugu santuaren izena, gehienetan adbokazioarekin lotuta egon ohi dena eta maiz adbokazioaren beraren era laburtua dena. Hagionimoak tenpluak edo bestelako egoitza sakratuak izendatzeko erabiltzen diren izenak ditugu. Neurri batean, beraz, toponimoak dira eta halakotzat jorratu behar ditugu.

Santu-izen hauek, ordea, bestelako edozein errealitate geografikotarako ere erabil daitezke eta, adibidez, jatorriz tenpluak izendatzen zituzten hagionimo haiek, gaur auzoak, mendiak, etxeak e.a. izendatzen dituztela aurkitzen ditugu. Era honetakoei, ‘hagiotoponimo’ iritzi diegu. Sail honetakoak dira lexikalizatuenak eta, beraz, egiazko toponimoak direnak, hala nola *San Fakundio tontorra* (Gorliz), *San Pelaio auzoa* (Bakion), *Jaun Done Mikel mendi-hegala* (Ubiden eta Zeanurin), *San Antonio hondartza* (Sukarrietan), *San Andres baserria* (Sopelan)...

Arautzean, tratamendu desberdina izan dute tenpluek eta gainerako lekuek. Alde batetik, hagiotoponimoak beste toponimoak bezalaxe jorratu eta, ondorioz, jasotako formak arauzko grafian errotulatu ditugu. Hauetan agertzen diren santu-izenak bereiz idatzi ditugu, nahiz eta kontsidera

litekeen, gainerako toponimoen moduan, grafia elkartua ematea. *Santi-* hasiera duten toponimoez ordea, hitz bi esango dugu. Izan ere, hasierako arau-zerrendan eta Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz, 12.3.1. arauaz baliatu ginen elkartuta arautzeko. Baina Euskaltzaindiaren azken erabakiek<sup>68</sup>, irizpide hau aldatu eta banatuta idaztera eraman gaituzte. Hala ere, badira lexikalizazio maila altuagatik elkartuta utzi ditugun hagianimo batzuk ere: *Santillandi ermita* (Meñakan), *Santimamiñe haizuloa* (Kortezubin) edota *Santindere ermita* (Mungian). Bestelakoak, ordea, banaturik idatzi ditugu sistematikoki: *Santi Mami ermita* (Erandion), *Santi Kurutz ermita* (Zeanurin)...

Tenpluen kasuistikara itzuliz, onartu behar dugu 12.6.1.<sup>69</sup> eta 12.7.1.<sup>70</sup> arauetatik aldentzen diren erabaki batzuk hartu direla. Betiere ahozko formari garrantzia eman nahirik, honako aukera berriak egin ditugu: tenplu baten izena berezia eta lexikalizatua dela ikusi denean, hagianimotzat hartu eta haren ondotik adbokazio osoa eman dugu, bertsio bakoitzeko hizkuntzan eta parentesi artean: *Sallobente ermita (Done Laurendi Martiria) / Ermita de Sallobente (San Lorenzo Mártir)* (Mañarian), *Santomazarra ermita (Done Tomas Apostolua) / Ermita de Santomazarra (Santo Tomás Apóstol)* (Zeberion), *Elexatxiki ermita (Abesuko Kristo Santua eta Gurutze Santua) / Ermita de Elexatxiki (Santo Cristo y Santa Cruz de Abesu)* (Markina-Xemeinen)... Hizkuntza ofizialetariko batean jasotako izena, arestian esan bezala, adbokazioaren era laburtu huts bat bada (sasi-hagianimoa), beronen era osoa eman da hizkuntza horretan, ondoren parentesirik gaineratu gabe: *San Pedro eliza (Done Petri Apostolua) / Iglesia de San Pedro Apóstol* (Markina-Xemeinen), *San Juan ermita (Done Joane Bataiatzailea) / Ermita de San Juan Bautista* (Amorebieta-Etxanon), *San Pedro ermita (Done Petri ad Vincula) / Ermita de San Pedro ad Vincula* (Zalla)... Hagianimo horren lagun toponimoren bat baldin badao, ondoan dagoen beste errealitate geografiko bat izendatzeko erabiltzen ez denean baizik ez dugu jarri, gainerakoetan, erreferentzia kokatzaile huts bat dela jo dugulako: *Agirreko Andra Maria* (Gorlizko ermita), *Arantzaiko Magdalena* (Berriatuko ermita) edota *Antzorizko Santa Katalina* (Lekeitioko ermita)...

Bukatzeko, aitortu behar dugu sistema honek badituela zenbait eragozpen ere. Kasuren batean gerta dakiguke, adibidez, auzoak edo herriak hagiotoponimo bat hartu duela izen, eta kasu horretan grafia desberdinak suerta dakizkiguke elkarrekin: *San Pelaio auzoa / Barrio San Pelaio* (Bakion) eta ondoan *San Pelaio ermita (Done Pelaio) / Ermita de San Pelayo*.

Laburbilduz, tenpluei dagokienez, bertsio bikoitza eman nahi izan dugu kasu guztietan, aipatu bezala, adbokazioak ez direlako toponimotzat hartu behar eta beraz itzulgarriak direla pentsatzen dugulako. Aitzitik, badago bestelako arrazoirik ere. Hain zuzen ere, euskaran den tradizio gabegiarekin apurtu nahi izan dugu. Hots, adbokazioena euskaraz tradizioz gabeko saila dugu.

---

<sup>68</sup> Euskaltzaindiaren 125. araua, *San, santu done eta besteren erabilera* arautzen duena.

<sup>69</sup> 12.6.1. *Hagiotoponimia: adbokazioetan (eliza, baseliza, komentu, santutegi, etab.) tradizio bikoitza dagoenean izen biak, euskarazkoa zein erdarazkoa, onartuko dira bakoitza bere esparruan. Toponimoaren osagai espezifikoaren eta generikoaren arteko loturari dagokionez, gainontzeko toponimoetan bezala jokatu da. Mertzedarien komentua / Convento de las Mercedarias (Gernika).*

<sup>70</sup> 12.7.1. *Hagiotoponimia: adbokazioetan (eliza, baseliza, komentu, santutegi, etab.) ahoz euskaraz zein erdaraz izen espezifiko bera erabiltzen bada, generikoa baino ez da itzuliko: Toponimoaren osagai espezifikoaren eta generikoaren arteko loturari dagokionez, gainontzeko toponimoetan bezala jokatu da. Andramari (A) > Andra Mari baseliza / Ermita de Andra Mari (Kanpezu).*

Hagionimian ere ikus daiteke gabezia horren isla, euskal hiztunek sarritan gaztelaniazko erak erabiltzen dituztelako tenpluak izendatzeko. Arrazoi honengatik, gure uste apalean, estandarizanteak izan arren, horrelako formak beharrezkoak dira hizkuntzaren normalizaziorako, betiere, guk egin legez, ahozko forma berezi eta interesekoak baztertu gabe.

## **5. GENERIKOAREN TRATAERAZ:**

### **5.1. Toponimo osatuak eta osatugabeak**

Oro har, aldaeren artean generikorik gabekoa hobetsi dugu, hau da, toponimoa al bait biluzien ematen saiatu gara. Gure ustez, generikoen lexikalizazioa (toponimoaren parte bihurtzea) saihestu beharreko fenomeno da. Izen generiko horien erabilera, bere konpetentzian oin hartuta, hiztun arruntak gainera dezakeen errekurso irekia da. Araututako erarekin batera generikoa eutsirik emanez gero, bera gabeko erabilera ez dela posible ematen ariko ginateke aditzera. Hala ere, gauza jakina da lan honetan araututako leku-izenen zazpi bertsio ematen direla: toponimo soila euskaraz, toponimo soila gaztelaniaz (generikorik gabea, alegia), ofiziala (batzuetan arautu gabea), toponimo osatu kartografikoa euskaraz eta gaztelaniaz (mapetan agertu beharreko era generikodunak, alegia) eta zerrendetarako toponimo osatu hizkuntza bietan (zerrenda alfabetikoak osatzekoa, hau da, gaineratutako generikoa atzean duela). Adibidez: *Garbe / Garbe / --* (ez da auzo ofiziala) / *Garbe auzoa / Barrio Garbe / Garbe auzoa / Garbe, Barrio* (Igorreko auzoa); *Pardo / Pardo / --* (ez du izen ofizialik) / *Pardo baserria / Caserío Pardo / Pardo baserria / Pardo, Caserío* (Amorebieta-Etxanoko baserria); *Saldoja / Saldoja / --* (ez du izen ofizialik) / *Saldoja erreka-zuloa / Barranco Saldoja / Saldoja erreka-zuloa / Saldoja, Barranco* (Artzentalesko erreka-zuloa)...

Argi utzi behar da, toponimoak *Garbe, Pardo, Saldoja...* direla eta mapen errotulaziora begira, ondoren hornitu egiten ditugula generiko estandarrak gaineratuz. Baina ez da ahaztu behar, generikorik gabeko erabilera izaten dela ohikoena kasu horietan, hau da, generiko horiek ez daudela lexikalizatuta, ez direla toponimoaren parte.

### **5.2. Generikoaren trataera mapen errotulazioan**

Eztabaidatua izan den arren, badirudi Euskaltzaindiko Onomastika Batzordearen irizpide orokorra oso argia dela alor honetan. Egia esan, zeharo gai komentzionala dugu hau eta edozein irtenbide izango litzateke onargarria. Horregatik ez dugu polemikarik elikatu nahi eta irizpide ofiziala onartu besterik ez dugu egingo. Gaineratu behar da, hala ere, generikoen grafiari hizkuntza ofizial biek bilatu dizkieten soluzioak ez datozela bat.

Euskaraz, gaineratutako generikoak minuskulaz eta artikuluz idatzi ditugu: *Serantes mendia* (Abanton eta Santurtzin), *Aranbaltz errekea* (Mallabian eta Markina-Xemeinen), *Urko baserria* (Sopelan)...

Gaztelaniaz ordea, mapako izenetan gaineraturiko generikoak letra larriaz eta artikulurik gabe idatzi dira: *Caserío Elortzabari* (Mungian), *Fuente Katilutxueta* (Diman), *Barrio Zaramillo* (Gueñes)...

### 5.3. Tokian tokiko generikoak

Ez dago oso argi noraino erabili behar ditugun tokian-tokiko generikoak eta nondik aurrera era estandarrak. Oro har, toponimoaren zati kontsideratu baditugu, mantendu egin ditugu era dialektalak: *Arrangizgana* (Mallabiko mendatea), *Baldako txuntxurra* (Markina-Xemeingo tontorra), *Altzalegitxarkoa* (Markina-Xemeingo erreka), *Calleja el Pigazo* (Artzentesko erreka-zuloa), *Cueto la Cebra* (Villaverde Turtziozko mendi-adarra), *Regato Joyuelo* (Karrantzako erreka)...

Arrazoi gehiagoz, errepikapenak ekidin nahiz, ahoz jaso den generikoa *Izen Geografikoen Glosarioko*<sup>71</sup> era normalizatuarekin bat datorrenean, ez dugu ostera ere berbera gaineratu: *Luminagaerreka* (Amorebieta-Etxanon eta Lemoan), *Abadebaso* (Bermeon), *Iturribaltza* (Munitibarren)..., eta ez \**Luminagaerreka erreka*, \**Abadebaso basoa*, \**Iturribaltza iturria*.

36.1.1.<sup>72</sup> arauarekin bat etorritik, tokian-tokiko generiko lexikalizatu hauek esanahi argia dutenean, dagokien hizkuntzan ez dugu gehitu estandarrik, bai ordea beste hizkuntzako bertsioan: *Muntegigana / Cima Muntegigana* (Gautegiz Arteagako tontorra), *Asoloerreka / Arroyo Asoloerreka* (Jataben), *Elgetzubaso / Bosque Elgetzubaso* (Igorren)...

Kontrara, baldin generiko lokala oso ezberdina bada, hiztun arruntarentzat esanahi iluna badu, edo errakuntzak ekar baditzake, generiko estandarra gehitu diogu izenari: *Lexartzaburu tontorra / Cima Lexartzaburu* (Mallabian eta Markina-Xemeinen), *Murgazearra hegala / Ladera Murgazearra* (Arteagan), *Calle del Toral erreka-zuloa / Barranco Calle del Toral* (Turtziozen)...

Jasotako generikoa lexikalizatutzat eman daiteke, bere esanahia jadanik ez datorrenean izendaturiko errealitatearekin bat. Kasu horietan, toponimo arruntzat hartu eta hornidurazko generiko estandarra gaineratu dugu: *Kanterazarra basoa / Bosque Kanterazarra* (Mungiako basoa, ez harrobia), *Pagatza tontorra / Cima Pagatza* (Galdakao eta Zaratamoko tontorra, ez pagadia), *Bediakolea auzoa / Barrio Bediakolea* (Bediako auzoa, ez ola)...

Beste kasu batzuetan, izenarekin generikoa jaso den arren, beste leku-izen batzuetan oinarrituriko erreferentzia hutsak direla ematen du. Berezko izate erreferentzial horrengatik beragatik, generikoak ezinbestekoak izan daitezke erabileran, baina lexikalizazio-maila ez da altua eta horrenbestez, generiko estandarrak erabiliz itzulpenak egiten ere ausartu gara, 8.3.1. arau berriak<sup>73</sup>

<sup>71</sup> Eusko Jaurlaritza (...) aipamen osoa egin

<sup>72</sup> 36.1.1. *Toponimoan izen generikoa azaltzen denean: jasotako formak espezifikoa eta dagokion generikoa sintagma berean ematen dituztenean, bere hartan gordeko da. Generikoari dagokionez, toponimoaren jatorrizko hizkuntzan ez da beste generiko bat erantsiko, bai ordea jatorrizkoa ez den hizkuntzan. Peñalba (A) > Peñalba haitza (eu) / Peñalba (gaz) (Galdames).*

<sup>73</sup> 8.3.1. *Ahoz generikoa jaso arren, beste leku-izen batean oinarrituriko erreferentzia hutsak direnak, genitibo egiturakoak badira eta darabilten generiko hura estandarrarekin bat datorrenean, haren itzulpena egin daiteke. Angoitian kanterea (A) > Angoitaren harrobia / Cantera de Angoitia (Zeanuri), Agirreko iturria / Fuente de Agirre (Gordexolako iturria, ondoan Agirre baserria ere jasoa), Abantoko erreka / Regato de Abanto (gaztelaniazko eran jasoa, herri hori zeharkatzen duen erreka delarik).*

honetarako bide ematen baitigu: *Angoitiaren harrobia / Cantera de Angoitia* (Zeanuriko harrobia, ahoz *Angoitian kanterea* jaso), *Agirreko iturria / Fuente de Agirre* (Gordexolako iturria, ondoan *Agirre* baserria ere jaso), *Abantoko erreka / Regato de Abanto* (gatzelaniazko eran jaso, herri hori zeharkatzen duen erreka izanik)...

#### 5.4. Udalburuen generikoa

Toponimoaren parte diren generiko lexikalizatuak ezinbestekoak dira eta bertsio guztietan agertu behar dira modu batean edo bestean. Ordea, hornidura gisa errotulazioan gaineratzen ditugun generikoak arautzean, zenbait erabaki komertzional hartu behar izan dugu, irizpideetan honetarako jarraibideak ez baitaude beti zehaztuegi, segur aski afera hau toponimiari baino gehiago, lanaren estiloari dagokiolako.

Generiko kengarri hauetaz aritzean, aipatzekoa da udalburua den auzoa<sup>74</sup> udalaren izenkidea den kasuetan –kasurik gehienak, alegia– ez dela generikorik gaineratu: *Arrigorriaga*, *Areatza*, *Elorrio*...

Irizpide bera erabili da Urduñako kontzejuen kasuan<sup>75</sup>, beti izenkidea den kontzejuko auzo-buruaren izena generikorik gabe errotulatuz: *Belandia*, *Mendeika*, *Lendoñobeiti* (Urduñako kontzejuak eta auzo ofizialak)...

#### 5.5. Gaineratutako generikoa

Gorago esandakotik atera daitekeen bezala, errotulaziorako bertsioetan oro har, generiko estandarra gaineratu da hizkuntza bietan.

Baserri-izenetan, lehenik, beti gaineratu dugu generikoa, nahiz eta oikonimoaren barruan lexikalizaturiko *etxe* edo antzeko izenik egon: *Angioetxebarria baserria* (Elorrio), *Gibelerrota baserria* (Lemoiz), *Arroitajauregi baserria* (Zornotza)... Eta halaber, zenbait kasutan, generiko estandarrean *etxea* osagaia egonik ere: *Bekoerrota etxea* (Arrieta), *Etxaburu dorretxea* (Izurtza), *Etxezuri etxea* (Zornotza)...

Generiko hau gehitu dugu, bigarrenik, toponimoak ez duenean generikorik, edo duen generikoak adierazten duen errealitate geografikoa ez datorrenean gaurkoarekin bat: *Tripaerreka basoa* (Mungiako basoa), *Andrabaso baserria* (Arrigorriagako baserria), *Aranzubia etxea* (Gueñesko etxea)...

Honen ondorioz, hirugarrenik, izenean erabiltzen den generiko lexikalizatua kode geografikoari dagokion estandarren esanahi berekoa edo esparru semantiko berekoa denean,

<sup>74</sup> 40101 geografia-kodea daramana, alegia.

<sup>75</sup> Bizkaian gaur egun Urduñan baizik ez dago kontzejurik.

hizkuntza horretan ez dugu bigarren generikorik gaineratu, bai ordea bestean (36.1.1. araua<sup>76</sup>): *Aiendagana / Cima Aiendagana* (Amorotoko tontorra), *Astoagasakona / Barranco Astoagasakona* (Zeberrioko erreka-zuloa), *Errotatxarkoa / Arroyo Errotatxarkoa* (Orozkoko erreka)...

Hala ere, generiko lexikalizatu hori eta beste hizkuntzarena hoskideak direnean, ez dugu ez batean ez bestean generiko estandarrik gehitu (36.5.1. arau berritua<sup>77</sup>), baina betiere kodeketa geografikoari arreta emanik, generiko estandarrik zeintzuk lirerateken begiratuta eta generiko horien balizko polisemia kontuan izanik. Gainera, badirudi beste generikorik ez gaineratzeko irizpidean arrazoi gehiagok hartzen dutela parte, adibidez toponimoak genitibo egitura edukitzea, jadanik bi hitzeko izena izanik: *Neberabarri* (Orozkoko elurzuloa, inola ere ez *Nevera Neberabarri*), *Puntamotz* (Gorlizko punta, inola ez *Punta Puntamotz*), *Sasiko txabola* (Zeanuriko txabola, inoiz ez *Chabola Sasiko txabola*)... Kasu hauetan, bietarik edozein hizkuntzatan generikoa gaineratzeak errepikapen-zantzua ekarriko luke eta aplikatutako irtenbideak efektu hori saihesteko balio duela dirudi.

## 5.6. Errepideen generikoa

Errepideetan, kodeketa geografikoak bost mota desberdin bereizten ditu: 70404tik 70408ra biak barne, *lehentasuneko errepidea*, *autonomia-erkidegoko errepide nagusia*, *eskualde errepidea*, *tokiko errepidea* eta *bestelako errepideak* hurrenez hurren. Generiko konplexu horiek jartzea, maiz errotulazio arazoak sortuko lituzkeela ohartuta, edozein motatakoa izanik ere, *errepidea / carretera* generiko hutsa erabiltzea erabaki da: *BI-3151 Plentzia-Goikoerrota errepidea / Carretera BI-3151 Plentzia-Goikoerrota* (70407), *N-240 Tarragona-Bilbo errepidea Barazatik / Carretera N-240 Tarragona-Bilbao por Barazar* (70404), *A-2522 Ziorraga-Laudio errepidea / Carretera A-2522 Ziorraga-Laudio* (70406)...

## 5.7. Generikoen itzulpenaz

Toponimoen itzulpena egitea zilegi ez dela kontuan izanik ere, onartu behar dugu zenbait kasutan generikoaren itzulpenari ondo iritzi diogula. Berau egiteko erabili dugun irizpideak, generikoaren lexikalizazio mailan izan du oinarria. Gakoa dugu generiko hori izenaren parte dela zein puntutaraino esan daitekeen neurtzea.

Genitibodun izen erreferentzialak (batez ere hidronimia alorrean, oronimian ordea oso gutxitan) itzuli egin ditugu sistematikoki (8.3.1. arau berria<sup>78</sup>). Hala ere, toponimoak itzultzean tentuz eta beldurrez ibili behar da beti. Egin ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira: jasotako erak

<sup>76</sup> 36.1.1. *Toponimoan izen generikoa azaltzen denean: jasotako formak espezifikoa eta dagokion generikoa sintagma berean ematen dituenean, bere hartan gordeko da. Generikoari dagokionez, toponimoaren jatorrizko hizkuntzan ez da beste generiko bat erantsiko, bai ordea jatorrizkoa ez den hizkuntzan. Peñalba (A)> Peñalba haitza (eu) / Peñalba (gaz) (Galdames).*

<sup>77</sup> 36.5.1. *Toponimoan izen generikoa azaltzen denean: toponimo batek (itxuraldatzeagatik, bigarren generikorik ez onartzeagatik etab.) gainerakoekin jarraitu den tratamendua onartzen ez duenean, aldaera bakarra izango du hizkuntza bietan eta bertsio guztietan, bereziki genitiboaren atzizkien (-ko, -[r]en) bidez sortutako sintagmak osatzen dituzten toponimoetan. Putreen erreka (Hondarribia, Pasaia).*

<sup>78</sup> 8.3.1. *Ahoz generikoa jaso arren, beste leku-izen batean oinarrituriko erreferentzia hutsak direnak, genitibo egiturakoak badira eta darabilten generiko hura estandarrekin bat datorrenean, haren itzulpena egin daiteke. Angoitian kanterea (A)>Angoitaren harrobia / Cantera de Angoitia (Zeanuri), Agirreko iturria / Fuente de Agirre (Gordexolako iturria, ondoan Agirre baserria ere jaso), Abantoko erreka / Regato de Abanto (gaztelaniazko eran jaso, herri hori zeharkatzen duen erreka delarik).*

genitibo egituradunak izatea (-ko, -en desinentziak edo de preposizioa), mugatzailerik gabe ez agertzea (mugatzaileak edo artikulua lexikalizazio maila urria adierazi ohi dute, mugagabeak, ordea, generikoa toponimoaren parte ezin banatuzkoa dela), erreferentzial argiak izatea (atal espezifikoak beste objektu geografiko bat ere izendatzea), jasotzen den generikoa arrunta edo estandarrekin bat datorrena izatea (ez beraz *txarkoa*, *landea*, *cueto* edo halakoak). Hau da, itzulpena egin baino lehen, lexikalizazio maila minimo bat adierazten duen seinalerik ez du eduki behar toponimoak, kasu horretan ezin egin baikenezake itzulpenik. Baldintza horiek betetzen baditu, kontsideratu dugu toponimoan agertzen zaigun generikoa ez dagoela erabat ihartuta, ez dela guztiz toponimoaren parte, eta honenbestez itzulpena egin daitekeela: *Abadiñobasoko errekea* / *Arroyo de Abadiñobaso* (Berriz eta Muxikan, *Abadiñobaso* izeneko basoa ere jasorik), *Orabilgo iturri* / *Fuente de Orabil* (Lemoizen, *Orabil* izeneko auzoa ere badagoela jakinik), *Arenaoko aldapa* / *Cuesta del Arena* (Sopuertan, *Arena* auzoa ere agertzen den artean)...

### 5.8. Bizkaiko -ea amaieradun generikoak

Gauza jakina da, Bizkaiko euskararen ezaugarria dela -a berezkodun hitzetan mugatzailea gaineratzean  $a+a=ea$  bokalismoa gertatu ohi dela eta bizi-bizirik dagoela hizkera arruntan. Espero zitekeen bezala, elkarrekin suertatu zaizkigu maiz hornidurazko generikoak zein generiko lexikalizatuak, azken hauek batzuetan mugatzailea daramatela eta beste batzuetan ez. Ondorioz, mapa berberetan *erreka-errekea*, *txabola-txabolea*, *kantera-kanterea*... generikoak elkarren ondoan aldi berean errotulatu beharko zela zirudien, honek irakurleari eman diezaiokeen inpresio txarra nolabait asumiturik.

Suerta daitezkeen kasuak hiru sailtara laburbil daitezkeela uste dugu. Lexikalizatutakoak mugatuta (*txabolea* edo *errekea*), lexikalizatutakoak mugagabean (*txabola* edo *erreka*) eta gaineratutakoak beti mugatuta (*txabola* nahiz *erreka*). Lehenengo biak jaso bezala utzi behar direla uste dugu, balitekeelako toponimoetako generiko lexikalizatuak mugatuak zein mugagabe erabiltzea eta ez baita arautze kontua mugatzaile horiek sistematikoki eta beti kendu ala gaineratzea. Kontrara, dokumentazioari eta erabilerari kasu emanik, izen bakoitzari dagokion era arautua eman beharko zaio. Funtsean, mugatutako era dialektal horiek, toponimoa lexikalizatu dagoenean eta mugatzailea tradizioan eta erabileran oinarririk duenean arautu behar direla uste dugu<sup>79</sup>.

Dena dela, gauzak honela, mapa berean elkarren ondoan ager daitezke *erreka* eta *errekea*, *txabola* eta *txabolea*... erak eta erabiltzaileak pentsa dezake zerbait gaizki egin dagoela. Nolabait, mapen itxura kaltetzen duten egoera hauek gutxiagotan gerta zitezten, gaineratu ditugun generikoak era dialektalean ematea erabaki dugu *erreka* eta *txabola* izenen kasuan, maiztasuna ere kontuan izanik. Ondorioz, sistematikoki *errekea* eta *txabolea* generikoak jarri dira 20203 eta 40307 kodedun izenen ostean gaineratu direnean, ordezkoko besterik ezer ez zutelarik edo lexikalizatutako/itzulitako

<sup>79</sup> Onartu beharra dago, hala ere, honelako generikorik ez duten toponimoetan joera nagusia mugatzailea galtzearen aldekoa den bitartean (*Etxebarria* > *Etxebarri*, adibidez), era honetakoetan, dokumentazioan mugatzailerik gabe agertzen diren izenetan gaurko ahozko erabileran artikulua gaineratzea oso gauza ohikoa dela (*Bekoerreka* > *Bekoerrekea*, tokian tokiko hitz amaierako bokalismoak bokalismo > -ja, -ie, -ii, -i, -é...). Ondorioz, tentuz jokatu behar da, erabileran jaso dugulako, tradizio idatzian oinarririk ez duen mugatzailerik arazko eretan ez onartzeko.

beste izenik ez baldin bazuten: *Andikorta / Andikorta txabolea / Chabola Andikorta* (Abadiñon), *Katategi / Katategi errekea / Arroyo Katategi* (Elorrion), *Zubialde / Zubialde errekea / Arroyo Zubialde* (Ereñon)... Kontrara lexikalizatutzat hartu ditugunak, jaso diren eran bertan utzi ditugu: *Abaderreka / Abaderreka / Arroyo Abaderreka* (Markina-Xemeinen, mugatzailerik gabe jaso), *Munikolako txabola / Chabola de Munikola* (Zaldibarren era hartan jaso eta gero gaztelaniara itzulia), *Betzuenerrekea / Arroyo Betzuenerrekea* (Amorebieta-Etxanon eta Diman, ahoz mugatzailea eta guzti jasoa)...

Erabaki hau Enkarterri ez Bizkaiko beste eremu guztietan aplikatu da. Hau da, gaztelaniazko inkestan jasotako generikoa itzuli edo era horretako toponimoari gaineratu diogunean, generiko estandar hutsa jarri diogu, *erreka* eta *txabola* alegia: *Alcuerako erreka / Regato de Alcuera* (Karrantzan), *Basozainaren txabola / Caseta del Guarda* (Zallan), *Mirafior txabola / Chabola Mirafior* (Gueñesen).

### 5.9. Mendateak, ermitak eta elizak

Mendateetan, ermitetan eta elizetan<sup>80</sup> euskarazko bertsioa genitiborik gabe joan arren, gaztelaniazkoan *de* preposizioa jartzeari iritzi diogu egokiago, hizkuntza bakoitzeko joera berezkoa horixe dela uste dugulako: *Barazar mendatea / Puerto de Barazar* (Zeanurin), *San Seberino Abadea eliza / Iglesia de San Severino Abad* (Balmasedan), *Santa Ana ermita / Ermita de Santa Ana* (Kortezubin)...

### 5.10. Aurrien generikoa

Errotulazioa txukunagoa izan zedin eta bestelako kartografietan egin ohi denarekin bat etorrira, aurrien kode geografikoa duten eraikuntzetan<sup>81</sup>, betiere ezagutzeko modua izan dugunetan, jatorrizko generikoa jarri dugu (*baserria* kasu) eta ondoren parentesi artean (*aurriak*) oharra pluralean: *Akaiturri baserria (aurriak) / Caserío Akaiturri (ruinas)* (Aulestin), *Bastegiko txabola (aurriak) / Chabola de Bastegi(ruinas)* (Jataben), *San Bernabe ermita (aurriak) / Ermita de San Bernabé (ruinas)* (Otxandion)...

### 5.11. Akastun generikoa

Akatsa dela uste dugulako, generikoen glosarioan baliokide bezala ematen diren *padura / marisma*<sup>82</sup> kontuz tratatu ditugu. Euskarazko *padura* hitza, antza denez, nolana hiko lur bustizko aurkintzatarako da baliagarria, baina gaztelaniazko *marisma*, etimoak ondo adierazten duenez, latinezko *mare* hitzetik heldu zaigu eta itsasoko padurei bakarrik ezarri ahal zaie. Ur gezako padurari gaztelaniaz *humedal* generikoa eman diogu eta uste dugu hau edo antzeko soluzioa gaineratu beharko litzatekeela *Izen Geografikoen Glosarioan* ere. Hala errotulatu dira *Padura / Humedal* (Gatikan) eta *Saldropo padura / Humedal Saldropo* (Zeanurin), baina *Txipio padura / Marisma Txipio* (Barrikan eta Plentzian), *Telleria padura / Marisma Telleria* (Muruetan)...

<sup>80</sup> Hurrenez hurren, 70414, 60909 eta 60903 geografia kodekoak, alegia.

<sup>81</sup> 40310.

<sup>82</sup> 20108.

## Gomendio gehigarria

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aginduta, Deiker Institutuak egindako lan honen oinarriko filosofian, toponimia hau jasoko zuen kartografia, hizkuntza ofizial bien erabiltzaileek nork bere bertsioan jasotzeko “eskubidea” omen zegoen. Oinarri horren ondorioz, arautze lanaren egileek toponimo bakoitzaren bertsio biak, zazpina formatotan proposatu behar izan dituzte: generikorik gabeko erak hizkuntza bietan (ohikoan bat bera), era ofizial bakarra (bakarrik izen ofiziala duten lekuetarako, noski), mapan errotulatzeko era generikodunak hizkuntza bietan eta, azkenik, zerrendetan agertzeko era generikoduna hizkuntza bietan ere.

Alde batetik, ez da batere ohikoa gaur eguneko kartografietan izenak generikoa eta guzti agertzea. Errotulazio teknika egokiak erabiliz, generikoek aditzera ematen dutena ikur, kolore nahiz letra-molde desberdinen bidez adierazi ohi da modu egokian, mapek dakarten irakurra ahalik eta laburrena izan dadin erraztuz.

Beste alde batetik, errealismoz jokaturik, onartu behar da horretan jarduten duten enpresek nahiz erakundeek, nekez argitaratuko dutela lan kartografiko ber baten bi bertsio. Erraz justifika daiteke bertsio bakarraren argitalpena, sakonean dagoen arrazoi ekonomikoa argudiatuta, eta berdin diru horren jatorria publikoa zein pribatua izanik. Baina ez da hori bertsio elebakar bien hautua baztertzera eraman behar gaituen arrazoi bakarra. Honela eginez gero, gaztelaniazko bertsioa jasotzen duenak ez du euskarazko bertsioen berri izango eta, alderantziz, euskal bertsioaren erabiltzaileek ez dute bestearen informaziorik ezagutuko. Bada, toponimiaren zenbait alorretan, euskararen normalizazioak laguntza handia izan dezake mapa “elebidun” batekin. Adibidez, hagonimiaren kasuan hizkuntza bietako bertsioak elkarrekin aldeberean agertzeak, izugarriko emaitza didaktiko onak izan ditzake, bai euskaldun elebidunek ikas dezaten zeintzuk diren, hain ongi ezagutzen dituzten erdal adokazioen euskal era jasoak, eta bai erdaldunek euskal era horien berri izan dezaten. Halaber, hizkuntza bakoitzean izen desberdina duten auzuneei, herriei eta abar: erositako mapan “*Miravalles*” irakurtzen duen erdaldun elebakarrak ez du ikasiko herri horren euskal izena “*Ugao*” denik, informazio hori ukatzen zaiolako; bestalde, euskarazko mapa eskuratu duen euskaldun elebidunak ez du ikasiko, hor irakurtzen duen “*Andra Mariaren Zeruratzea*” era jaso, ondo entzunda eta ikasita daukan “*La Asunción de Nuestra Señora*” erdal adokazioari dagokiola, lehenengo hark ez baitauka ondoan azken hau.

Eta praktikan hala gertatuko zela agerian gelditu da, toponimia korpus honen lehenbiziko erabilpena eskuratu ahal izan dugunean. Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza eta Udal Harremanen Sailak argitara atera berri duen *Bizkaiko gidaliburu* - 2004 mapan (1:20000 eskalako), oso irizpide ulergarriaz, erakunde ekileak datubasetik, ia sistematikoki, erdal bertsioa generikorik gabe atera eta paratu duenean. Toponimoei generikoa kenduz gero, bertsio-kontuaren ondorioak oso izen kopuru txiki batera murrizten dira. Baina leku-izen biluziak hizkuntza bietan era nabarmen desberdinak dituzten kasuetan (hagonimia, herrien izenak eta abar, alegia), euskarazkoa gertzen da galtzaile eta beraz, aipaturiko mapak galdu du izan lezakeen funtzio didaktiko eta normalizatzailea. Hortaz, merkeagoak izateaz gainera, hizkuntza bietako erabiltzaileengan pentsaturik egindako mapek, hots,

nolabaiteko mapa elebidunek, askoz ere emaitza hobea izango dute hizkuntza normalizazioaren aferan. Helburua ez da hizkuntza bakoitzeko erabiltzailea bestearen munduaren ez-jakintasunean bizitzeko “eskubidea” bermatzea, baizik ere, hiritar guztientzat elebitasuna eta hizkuntza aukera, gertagarriak eta normalak izatea.

Bilbon, 2005eko otsaila

#### **Zuzentzaileen beste ohar batzuk:**

1.4. puntuaren amaieran aipatzen zen *Iramiñe* (Gorlizko baserria) izena gaizki araututa zegoen gure ustez eta datubasean zuzendu beharra legoke, beraz. *Irabien* > *iramiñe* aldaketan ez dago sudurkari baten aztarnarik. Kontrara, ezpainbikoen nahastea dugu alde batetik (*b>m*), bokal paragogea bestetik (*Irabien-e*) eta azkenik, hiatoaren sinpleketa (*Irabine*). Gure ustez, hiru fenomeno hauek ez dute arauzko eretan jasoak izateko mailarik eta *Irabien* litzateke, ondorioz, era zuzena. Gehien jota, *Iramien* onar liteke, beste kasu batzuetan *b>m* aldaketa ontzat eman da eta (*Lobiano* > *Lomiño*, kasu).

4.2. puntuan aipatzen da behin *Done Joane Bataiatzailea*. Deikerren arautu zen era –eta oso adokazio hedatua da Bizkaian– sistematikoki *Done Joane Bateatzailea* izan zen. Euskaltzaindiaren Hiztegi batuak, ordea, argiro dakartza *bataiatu* eta *bataiatzaile* hitzak modu honetan. Ondorioz, halako guztiak zuzendu beharko lirateke eta *Bateatzaile* era okerraren ordez *Bataiatzaile* jarri.

Puntu berean aipatzen zen *Santindere ermita* (*San Andres Apostolua*) / *Ermita de San Andrés Apóstol* (Mungian) adibidea, irizpideak eskuan, gaizki araututa dago, zeren aurreneko euskal izendapena “hagionimoa” bailitzateke (ez adokazioa) eta gaztelaniaz ere agertu beharko litzateke. Hau da, *Santindere ermita* (*San Andres Apostolua*) / *Ermita de Santindere* (*San Andrés Apóstol*) izango lirateke bi bertsio zuzenak. Nolanahi ere, agertzen zen lekua ez zen egokia, hor azaltzen den gertakarirako ez delako argigarri. Horregatik adibide egokiago bat jarri dugu haren ordez: Zallako *San Pedro ad Vincula* / *Done Petri ad Vincula*.